

GUaiXe.eus



Iriarte,
urrezko domina
arku jaurtiketan



Kirolak >> 19

Asteburuarekin batera festak
bueltan dira: Arruazun, Unanun,
Lizarragabengoan eta Urdianen
zer ospatu izanen da



Sakanerria >> 14



Klinika-artistak

>> 22-23



Hauteskundeak:
Elkarrekin Ahal
Dugu lehen
indarra >> 5-8



Euskarazko
hedabideen
aitortza
eskaera >> 3



Auto klasikoen
topaketa bihar
goizean
Altsasun >> 19



Emakumezkoen Nafarroako eta
Euskadiko erlojupeko txapelketa

Iturmendik hartuko du txapelketa, igandean,
11:00etatik aurrera >> 17

Arkeologoak Aralarrrera



>> 16

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com
www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**
Telf./Faxa: **948 468 360** · Telefono mugikorra: **690 641 860**





Garila

1-7

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Mendi irteerak

Midi D'Ossau itzulia. Garilaren 2tik 3ra, larunbatetik igandera. **Larrañeta mendi taldea.**

Bizikleta irteerak

Altsasu-Getze Ibargoitzi-Altsasu. 113 km. Garilaren 2an, larunbatean, 8:00etan Altsasuko Baratzeko bide plazako lokomotoratik. **Zikloturista taldea.**

Bestelakoak

III. Auto Klasikoan topaketa. Garilaren 2an, larunbatean, 9:30etik aurrera

Altsasuko Zumalakarregi plazan.

Enneco, haritzaren memoria. Lehen harria jartzea. Garilaren 5ean, asteartean, 11:00etan Etxarri Aranazko **Enneco parkean.**

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garilaren 1ean, ostiralean, 20:00etan Arbuziko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garilaren 3an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Altsasu / Urdiain / Arruazu / Unanu / Lizarragabengoa



San Pedroak

Altsasuarrek gogoz ospatu zuten San Pedro eguna. Lekukoa urdiaindarrei,

arruazuarrei, unanuarrei eta lizarragabengotarrei pasa diete.

Etxarri Aranatz / Lakuntza



Txupinazoan ikurriña jartzean "lege iruzurra" egin zela dio Gorenak

Lakuntzako eta Etxarri Aranazko Udalek joan den urteko festen hasierako txupinazoan ikurrina jarri zuten. Nafarroako Justizia Auzitegi Gorenak ebatzi duenez, "lege iruzurra" eta "agin-

tea desbideratzea" egin zuten. Epailen iritziz Euskal Autonomia Erkidegoko agindatariak propio gonbidatu zituzten ikurrina jarri ahal izateko. Epaiari ezin zaio helegiterik jarri.

Altsasu



Altsun Eskuaz

Altsasun euskalkiaz egin daitekeela aldarrikatu zuten San Pedro egune-

an Altsun Eskuaz taldeko neska-mutikoek, adibide praktikoak jarritz.

Ostiralero
SAIOA
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



Esataria: **Eneida**

Gaurko gaiak:

- Zubiondo, kantu poteo taldea
- Sakanako albisteen errepasoa

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

Nafarroako hedabideen egoera

Euskara hutsezko hedabideen balio soziala eta estrategikotasuna aitortzeko eskaera


Euskarazko tokiko hedabideak biltzen dituen Tokikom elkarteak Nafarroako Gobernuari eskatu dio: euskara hutsezko hedabideendako diru-laguntza deialdi propioa egitea eta hurrengo deialdiak sektorearekin egiaztatutak izateko.

Hizkuntzaren normalizazioan egiteko bat dute, modu eraginkorrean betez gero herritarren edota herri erakundeen partetik saria jaso beharko lukeena. Sari horrek berdintzen edo gaintzen badu merkatu galera, euskal hedabideak ere bideragarri izanen dira.

Nafarroako euskarazko hedabideek Nafarroako Gobernutik diru-laguntza jaso zuten azken urte 2010a izan zen. Bost urtetan diru-laguntzak desagertuta egon dira. Hamarkada erdi horretan makina bat zulo estali beharrean dauden toki-erakundeen aurrekontuak izoztuta egon dira. Haiek izan dira euskarazko hedabideen sustengua Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailarekin batera. Baina azken horrek

aurten iturria moztu du, Nafarroako Gobernuak diru-laguntza deialdia egin duelako.

Azken hori albiste pozgarria da Nafarroako euskarazko hedabideendako, baina... **Baina** 24 urtez Eusko Jaurlaritzaren babes jaso ondoren, trantsizio tarterik gabe diru-laguntza mozteak, babes hori gabe umezurtz sentsazioa utzi du Nafarroako euskarazko hedabideetan. Urte askotan Eusko Jaurlaritza izan da Nafarroako euskarazko hedabideen sostengarria, urtez urte Nafarroako Gobernuak berak baino diru gehiago inbertitu du sektorean. **Baina** 2010etik 2015era Nafarroako euskara hutsezko hedabideek jaso dituzten laguntzetan "ikaragarriko beherakada" egon da: %54. Ondorioz, lan sozial garrantzitsua egiten duten hedabide askoren ekonomia egoera sostengaezina bihurtu eta asko desagertu dira, batez ere prentsa arloan.



Ibilbidea

Gaur egun Nafarroan lanean ari diren euskarazko hedabide gehienak 90ko hamarkadan sortu ziren. Ordutik Nafarroan euskararen normalizaziorako tresna garrantzitsua bihurtu dira, tokian tokiko etxeetara sartuz. Etxe askotan, gainera, ez da bestelako euskarazko hedabiderik sartzen. Beraz, hedabideok nafar horiei euskara eskura jartzen diegu eta ia euskaldunak ere euskarara hurbiltzeko tresna izan gaitezke. Nafarroako Gobernuaren eskariz Cies etxeak 2013an egindako azterketaren arabera nafarren %50,6ak kontsumitzen zituen tokiko komunikabideak. Joerak ikusita, maila mantentzen dela pentsa liteke.

Euskara hutsezko komunikabideek egin duten lana balioan jartzeko beharra ikusten dugu. Horregatik, interesgarria iruditzen zaigu Euskal Autonomia Erkidegoan Mondragon Unibertsitateko ikerlari talde batek aurten aurkeztu berri duen ikerketaren bidean sakontzea. Ikerketa horren bitartez, datuekin azaldu dute ikerlariak, euskarazko hedabideak aberastasun sortzaile nabarmenak direla eta diruz lagundutako euro bakoitzeko 9,2 euroko ekarpena egiten diotela hedabideek gizarteari.

Nafarroako kasuan adibidez, garrantzitsua iruditzen zaigu azpimarratzea euskarazko hedabideek arnasmunean egiten duten



lana, eta Iruñerrian euskarazko komunitatea errotu eta zabaltzean betetzen duten rola. Gainera, kultur transmisiorako tresna garrantzitsua eta eraginkorra ere badira hedabide horiek, "haztegi izan gara hainbat artistendako." Azken (2011) soziolinguistika inkestaren arabera euskararen aldeko jarrerak gora. Hizkuntzaren normalizaziorako helburu horretan lan egin duten eragile desberdinei esker izan da hori, euskarazko hedabideena barne.

Tokikom

Euskarazko tokiko hedabideak biltzen dituen elkarteak da Tokikom. Bere baitan Nafarroako hedabide hauek daude: Xorroxin Irratia, Euskalerrria Irratia, Mailope, Ttipi Ttapa, Beleixe Irratia (FM 107,3), Guaixe aste-karia eta www.guaixe.eus.

Diru-laguntza deialdiaz

Nafarroako Gobernuak euskara erabiltzen duten hedabideetara zuzendutako diru-laguntza deialdia egin du aurten. Baina 150.000 euro ikus entzunezko deialdietatik bideratuko dira euskara hutsezko ikus-entzunezkoetara. Berrukuratu berri den hedabideen deialdiko 290.000 euroak euskara erabiltzen duten idatzizko prentsa, irrati eta on-line hedabideetara bideratuko dira. Baina horietatik 205.000 euro soilik daude bideratuta espreski euskara hutsezko hedabideetara. Eta poltsa hori hirutan banatu behar da: 120.000 euro, gehienez, euskara hutsezko toki aldizkariendako; 50.000 euro, gehienez, euskarazko irrati komertzialendako eta 35.000 euro, gehienez, udal titulartasuneko euskarazko irratindako.

Deialdiak, beraz, ez dio gehiagilaguntzen Nafarroako euskarazko hedabideen jarduna bermatzeari. Zergatik? Tokikom elkarteko **aldizkariak %15 gutxiago jasoko dutelako** (2015ean 141.262 eta 2016an 120.000 euro). Eta, gainera, joan den urteko deialdia lekuri ez zuten zenbait hedabide gehituko zaizkio. Irratien poltsa, gutxi gorabehera mantendu egingen da, baina **2011tik 2015era Tokikomeko irratiek jasotakoa %30 jaitsi da. Azkenik, agerkari digitalen**

kasuan %21eko beherakada dago. Joan den urtean Tokikom-eko kideek 18.095 euro jaso zituzten. Aurtengo poltsa 15.000 eurokoa da, baina deialdian euskara erabiltzen duten hedabide guztiak aurkeztu daitezke. **Beraz, Tokikom-eko kideek jasotako diru kopuruak nabarmen egingen du behera, aldaketarekin okerrago geldituko dira.**

Hedabideen beste diru iturrietako bat publizitatea da. Tokiko euskarazko prentsak zerbitzu hori eskaintzen du ere. Eta Nafarroako Gobernu eskertzeak diren urratsak egiten hasi da. **Baina** gaur gaurkoz ez du diru-laguntzetan jasanen dugun beherakada konpentsatzen. **Baina** tokiko prentsa ez da Nafarroako Gobernuak abian jarri duen publizitatearen kudeaketarako pleguan baremazioetan agertzen.

Ciesen 2015eko azterketaren arabera euskara hitz egin, irakurri eta idazteko gaitasuna duten nafarrak 67.000 dira. Eta Nafarroako paperezko toki hedabideen inguruan egindako azken datuak hartu (2012) eta irratien kasurako Ciesen daturik ez daudenez, Eusko Jaurlaritzak egindako galdetegi hartu eta estrapolatuz ari-keta bat egin nahi izan dugu eta emaitzaren arabera, 58.277 eus-

kaldunek kontsumitzen dituzte gure euskarazko produktuak, %87k. Datuek diotenaren arabera, euskarazko hedabideak bere zereginean eraginkorrak dira.

Beraz, publizitatearen alorrean ere bidea egin nahiko genuke, kontziente baikara bi hizkuntzak elkarbizitzaren duten lurraldeetan gure hedabideek dituzten audientzia datuez, liderrak norbere eskualdean. Mundu mailan informazio lokala edo hiperlokala gero eta estimatuagoa dela ere nabari uzten dute ikerketek.

246 kolaboratzaile eta 40 langile

Horien jardunari esker lortzen dugu Nafarroako euskaldunen %87k euskarazko komunikabideak kontsumitzea.

10,45 euro

Bataz beste orduko pertsonaleko gastua, 40 langile horien pertsonal gastuei eta urteko lan orduei erreparatuta. Paperezkoetan 12,05 eurotik gora, irratietan 7,43.



Alde!

Raf Atxuri

astekoa

Europako Batasunetik alde egitearen hautua gauzatu dute uhar-teetako britainiarrek, doi-doi eta ezustean, baina "alde!" bozkatu dute. Londresen, Ibexerrian, Bruselan eta Gibraltarren garunikarak eragin ditu erantzunak eta Erresuma Batuarendako nahiz Europarendako hodei beltzak eta trumoi urragarriak iragarri

dituzte hainbat profetak.

Ingeles eta galestar gehienak lerratu dira "alde!" horren alde eta bitxia bada ere beste batzuetan entzun ditugun mesprezu, irain eta gorroto mezu eta mehatxuak oso apal haizatu dira oraingoan. Bai, ez da gauza bera Katalunia, Eskozia, Quebec, Tibet, Armenia, Kurdistan, Euskal Herria edo Korsi-

ka larrutzea edo Erresuma Batua, Turkia, Errusia, Frantzia, Txina edo Espainia xaxatzea. Inperioenganako errespetua (edo beldurra) besterik ez da.

Irletako Britainian Viktoria erreginarene aroa gogoan XXI. mendeko behar izanetara moldatze lanetan sortzen diren "odol, izerdi eta malkoak" neketsuegi

iritzita bide propioagoa aukeratu dute jakinik Commonwealth osasuntsu baten erdigunea direla. Ingelesak, jende pragmatiko eta harroa izaki, trikimailu andana asmatu beharko dituzte lehen-go egoera ekonomiko oparoari (City deritzana ardatz) eusteko.

Europako Batasunak, sekula baino germaniarragoa, mota guztie-

tako excell-ak betetzen eta beste-lako orekak marrazten aritu beharko du heldu diren bi urteotan, baina batik bat Europako eraikuntza sozialari ekin beharko dio gogoz.

Bide batez, esan dezadan oraindik ez dudala iritzi izpirik aditu ingeles hizkuntzaren supremazismoa kolokan jarri duena. Kolonialismoak ez du etenik.

hara zer diren

Maitasuna ez da topatzen, eraikitzen baizik

Oraingelara biaste kaixomaitia.com atariak euskal herritarren harreman afektibo eta sexualen inguruko emaitzak argitaratu zituen. Pozgarria da, behingoz norbaitek gaiaren inguruko hausnarketa landua, atsegina eta erakargarria egin izana.

Bikote harremanak, harreman sexualak denon ahotan egoten dira baina gehienetan plazaratzeko garaian txistek kontatuz edo ironiaz hitz egiten ohi dugu. Horrela, interesgarria litzateke inkestaren datuei helduta behin-

goz gaia hartu eta gure bizipenetatik abiatuta elkarrizketak bultzatzea, hau baita bide bakarra harremanak, gure buruak, ezagutu, onartu eta ondorioz eroso-ago bizitzeko.

Oraingoan deigarria egin zaidan datu bat atera eta nire hausnarketa zuekin partekatu nahiko nuke. Inkestaren datuak irakurrita, esan dezakegu bikote harremanak garrantzia dutela euskal herritarren bizitzan. Emakume eta gizon gehienak bikote harremanean bizi dira edo bikote harremanak eduki-

tzea nahi dute. Bikote harremanak konfiantzan oinarrituta egotea nahi dugu eta elkarrekin ondo pasatzea bilatzen dugu.

Ongi dago jakitea zer nahi dugun harreman batean gaude-nean, hala ere datu hauek ikusita eta kontsultan ikusten dugunarekin lotuta, esan dezakegu geroz eta gehiago eskatzen diogula harreman bati, eta inkestak dioen moduan zoriontasuna helburua izanik, garrantzitsua da konturatzea bikoteak ezin dituela bizitzako esparru guztiak eli-

katu, hau da, bikotearekin ongi pasatzea ongi dago, baina bikoteaz aparte gure bizitza elikatzea eta gure kabuz disfrutatzen ikasteak ere, bikote harremanak elikatzeaz aparte, gure buruaren eta gure zoriontasunaren jabe egiten gaitu. Horrela, bikote harremanari eskatzen dioguna orekatu daiteke norberak beste bide batzuk eraikiz -lagunak, norberaren aktibitateak...-. Honetaz aparte, jakin behar dugu, bikote harreman bateko konfiantza edo bikotearekin ongi pasatzea, ez

direla ezer egin gabe agertzen. Harreman guztiak elikatu egin behar dira, eraiki eta hori partaide guztien ardura da. Bikoteari, harremanari, gauza asko eskatzen dizkiogu eta eskaerak egiterakoan zenbatetan galdetu diogu geure buruari eskatzen duguna nola eskaintzen dugun? Erich Frommek esan zuen moduan "inoiz ez duzu zure bizitzako amorea bilatuko, maitasuna ez baita topatzen, eraikitzen baizik.

Olatz Berasategi

objektibo tik



Gabarraren orde, gurdia

Aralar Mendi taldeak FS 5 Nafarroa Areto Futbol Txapelketako zilarrezko mailako liga irabazi eta urrezko mailara igo da. Horregatik Uharteko Arakilgo festetan taldeari merezitako omenaldia eman zioten. Aralar Mendi taldeko jokalariek herriari buelta eman zioten horretarako propio pres-tatutako gurdian, lehen mailako jokalariek bailitza.



Trafiko seinalea

Olatzagutiko San Sebastian ermita ondoko seinalea herriko kultur etxea eta kiroldegia egin aurretik han izanzen zen ziurrenik. Urteetan Nafarroako Gobernuak ez du hura aldatzeko batere gogorik izan. Krisia gero. Ega bazterreko hiriburuak izen elebiduna du orde, ofiziala gainera. Behin hizkuntza eskubideak aldarrikatzen hasita, euskaldunonak ere...

objektibo tik: gutunak@guaixe.eus

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Garbiñe Navarro Rodríguez • maketazioa@guaixe.eus
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano
ZUZENTZAILEA: Garazi Gartzia
ARGITARATZAILEA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: GK• Ainhoa Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:


Mank
 s a k a n a

BAZKIDEAK 


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

sakanerria >>

Hauteskunde orokorrak



2015eko emaitzak



Lehen indarra bihurtu da Elkarrekin Ahal Dugu

Gainontzeko alderdiek antzeko emaitzak lortzen dituzten bitartean Geroa Bai hamarretik lau babes galdu ditu

Igandean 15.545 sakandarrek zuten botoa emateko eskubidea, abenduan baino 56 gutxiagok. Parte hartzea orain dela urte erdikoarekin alderatuz gero 4,1 puntu jaitsi da, %65,31 izanik. 108 boto ez beste (%1,06), gainontzeko guztiak baliagarriak izan dira (%98,93). Eta azken horietatik txuriak 99 besterik ez dira izan (%0,97).

Sakandarren artean babes gehien izan duen aukeran aldaketa izan da: Elkarrekin Ahal Duguk lehen postua kendu dio EH Bilduri. Moreak indarrez sartu ziren abenduan eta sendotasuna berretsi dute 2.941 boto eskuratuz (%29,28), abenduan Ahal Duguketa Orain Baterak elkarrekin lortu zituztenak baino 342 boto gehiago, %13,15eko hazkundea. EH Bilduk sakandarren 2.718 babes jaso ditu (%27,06), orain dela urte erdi baino 98 gutxiago (%3,48). Abenduan izan zuen boto ihes handia (1.310) gelditzea lortu du eta boto portzentajea 0,81 puntu irabazi ditu.

Ibarreko 4. aukera izatetik 3. izatera pasa da UPN-PP. Koalizioak 1.698 boto eskuratu ditu (%16,9). Aurreko hiru deialdietan botoak galdu ondoren erregionalisten eta popularren zerrendak gora egin du eta abenduan baino 25 gehiago eskuratu ditu (%1,49 hazkundea). Geroa Bai sakandarren 4. aukera bilakatu da. Koalizioak abenduan 106 gora egin bazuen, oraingoan jaitsiera handia izan du, 856 boto (%42,92 jaitsiera) eta 7,26 puntu jaitsiz, 1.138rekin geldituz (%11,33).

Sakanako bosgarren aukera da PSN 1.051 botorekin (%10,46). Sozialistek azken bi deialdietako beheko joerari segituz 26 boto galdu dituzte (%2,41), baina 0,42 puntu hobetu dute portzentajea. Ciudadanos alderdia izan da ibarreko 6. aukera 268 botorekin (%2,67). Alderdi laranja urte erdian 70 boto (%20,71) eta 0,48 puntu galdu ditu Sakanan.

Alderaketak

Nafarroan politika aldaketa ahalbideratu zuten indarrek (Elkarrekin Ahal Dugu, EH Bildu eta Geroa

SAKANAKO HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZAK

KONGRESUA	2016		2015	
	Kopurua	%	Kopurua	%
Hauteskunde errolda	15.545		15.601	
Parte hartzea	10.153	%65,31	10.829	%69,41
Abstentzioa	5.392	%34,69	4.772	%30,59
Boto baliogarriak	10.045	%98,94	10.729	%99,08
Boto baliogabeak	106	%1,04	100	%0,92
Zerrendei emandakoak	9.946	%97,96	10.623	%98,10
Boto zuriak	99	%0,98	106	%0,98
HAUTAGAITZA				
Elkarrekin Ahal dugu	2.940	%27,40	2.816	%26,25
EH Bildu	2.717	%25,32	2.227	%20,76
UPN-PP	1.698	%15,83	1.994	%18,59
Geroa Bai	1.138	%10,61	1.673	%15,59
PSOE	1.051	%9,80	1.077	%10,04
Ciudadanos	268	%2,50	338	%3,15
PACMA	71	%0,66	234	%2,18
Recortes Cero-Berdeak	22	%0,21	142	%1,32
UPyD	15	%0,14	64	%0,60
Libertate Nafarra	13	%0,12	25	%0,23
SAIN	6	%0,06	23	%0,21
			11	%0,10

Bai) 6.797 boto eskuratu dituzte (%67,66), abenduan baino 474 boto gutxiago (%6,51eko jaitsiera). Abertzale (EH Bildu eta Geroa Bai) aukeratzen duten sakanda-

rren kopuruak behera egin du hirugarrenez. 3.856 (%38,38) izan dira hala bozkatu dutenak, 954 gutxiago (%19,83 gutxiago). UPN-PP eta PSN blokeak 2.749 boto

(%27,36) eskuratu ditu, abenduan baino bat gutxiago (%0,03 gutxiago). Elkarrekin Ahal Duguk orain dela urte eta erdi sortutako espazioa sendotu egin du.

Iñigo Aritza ikastolarako DBHrako IRAKASLE baten kontratazioa

ESKATZEN DENA:
Zientzietako titulua eta musika ezagutzak

EGA

Ez da lanaldi osoa izango

Nora bidali: curriculumak@inigoaritzza.eus
Epea: Otsailak 3, eguerdiko 12:00ak

nerea cenoz
nutrición

Giza Elikadura eta Dietetikan Diplomatuak (Nafarroako Unibertsitatea)

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan
Estafeta 16, atzea - Lakuntza (Bostekoa masaje zentroan)

info@nereacenoz.com
nereacenoz.com

Txalaparta

Taberna

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

» Olatzagutia

Bikoteari tratu txarra emateagatik gizona atxilotuta**Sexu indarkeria salatzen telefonoa 112 da**

Foruzaingoak jakinarazi duenez, joan den astean 44 urteko gizon olaztiarra atxilotu zuten. Emakumezko bikoteari tratu txarrak ematea leporatuta egin zen atxilotuta. Aldi berean, salaketa epaitegira bideratu zuten.

»

**Olatziko kultur etxe paretik pasatzen.****Ikurra elebitan jartzeko agindua**

Nafarroako Administrazio Auzitegiak Olatzagutiko Udalarik kultur etxearen kanpoko ikurra bi hizkuntzetan jartzeko agindu dio. Gaur egun euskaraz bakarrik dago eta UPNko Oscar Alvarez Peon zinegotziak aurkeztu zuen salaketa, kultur etxea ere gaztelaniaz jar zezatela eskatuz. Epaileak arrazoia eman dio, gogoraziremu euskalduneko erakundeek bi hizkuntzetan jarri behar dituztela kaleko seinaleak. Eraikin berezia denez, udala nola jarri aztertzen ari da. Auzitegitik "behin-behinean" behintzat gaztelaniaz jarri behar dela esandu. Zinegotzi bererekin emenez, joan den urtean beste epai batek udala kiroldegian errotuluelebidunak jartzera behartu zuten.

» Altsasu

Gazte ekintzetarako plazak libre

Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak udarako hainbat jardura antolatuta ditu. Zerbitzuetatik jakinarazi digutenez, gazte ekintza horietako batzuetan izena emateko aukera dago oraindik: graffiti beira edukiontzian, zaldi ibilaldiak eta hondartzak ateraldia. Informazio gehiago nahi izanez gero gazteria@altsasu.net e-postara idatziz edo 948 564 785 telefonora hots eginez.

» Bakaiku

Parte hartze prozesua buruan**Bakaikun jendea kalean korrikalariak animatzen.**

Bakaikuarrek etorkizunean arlo guztietan nolako herria nahi duten zehazteko prozesua abiaraziko du udalak irailan. Azpiegiturak, basoa, kultura, euskara, bideak, hilerria, eskola zaharra, auzolana... "Dena mahaigainean jarriko da. Denaren inguruan hitz egiteko lantaldeak sortuko dira. Haietan landuko dira gai horiek eta lortutako ondorioak herriari zabalduko zaizkio. Batzar edo galdetako bidez lehentasunak markatuko dira." Egoitz Urritza Lazkoz alkateak gaineratu duenez, "udalak ez du ezer inposatuko, gehien-geok erabaki beharko du."

Frontoia

Urritzak azaldu digenez, Iturrar-

te frontoian Bideberrialde kalera ate bat zabaltzea aztertzen ari dira. "Haizeteak teiladurako plaka batzuk mugitu zituen. Jaso-makina sartu ezin genuenez, aldamiok jarri behar izan genituen eta 2.300 euro pagatu behar izan genituen. Etorkizunean, edozer gauza pasatuta, halako ordainketa ez egiteko ate bat zabaltzeko aukera aztertzen ari gara."

Bakaikun Euskaraz

Asteleheneetik festetaraino haurrendako aisialdi programamartxan izanen da. Dozena bat haur bi begiralarekin ariko dira, astegunetan, goizez lau orduz.

» Altsasu

Galdutako miloi bat metro kubiko urren bila

Horren bila dabil Altsasuko Udala, aspaldi. Urtero errepikatzen den kontua baita. Eta orain arteko ahaleginek ez dute emaitzarik eman. Urdalur uharkatik Altsasuko ur biltegira 1.440.787 metro kubiko iristen dira. Horixe fakturatzen dio Sakanako Mankomunitateko Ur Zerbitzuak Altsasuko Udalarik. Baina azken horrek ur-kontagailuen bidez 398.737 metro kubiko besterik ez ditu fakturatzen. Non daude 1.042.050 metro kubiko horiek? Orain arte ez da jakiterik izan. Ur ihesak eta bestelako arrazoiak izan daitezkeela azaldu du Javier Ollo Martinezek.

Alkateak jakinarazi duenez, konponbide baten bila ur azpiegituren kudeaketaz arduratzen diren Nilisa enpresa publikoarekin harremanetan jarri dira. Ollok gogorarazi du Altsasuko Udalak Mank-i ordaintzen dion 500.000 euroetatik ia erdia, 235.627,91 euro, ur horniduragatik dela. Herriko ur horniduran gertatzen dena kon-

**Baratzeko bideko iturria.**

ponduko balitz, diru kopuru hori asko jaitziko litzateke beraz.

Aldi berean, alkateak gogorarazi zuen Geroa Baik legegintzaldi hasieran mankomunitateko

zerbitzuei buruzko batzordea osatzeko proposatu zuela eta gainontzeko alderdiek atzera bota zutela. "Delegatutako eskuduntzen eta emandako diruaren jarraipena

egiteko, bikoiztasunik zegoen zehazteko edota uraren moduko arazoak aztertzea litzateke haren egitekoa. Ezzen atera. Lantalde bat sortzea izan daiteke aukera."

»

Zelandiko guraso elkarteak egoitza izanen du

Zelandi eskolako atezainaren auzan etxea aurrerantzean ikastetxeko guraso elkartearen egoitza izanen da. Han bere materiala gorde eta bere jarduerak garatzeko aukera izanen du. Zelandi eskolako guraso elkartearen eta Eskola Kontseiluaren eskaerari oniritzia eman zion aho batez Altsasuko Udalak astearteko bilkuran.

Bialdeek hitzarmena sinatuko dute orain. Urte baterako erabilera onartu dute, gehienez hamar urtera arte luzatu daitekeena. "Epe hori pasata halako akordioa

**Guraso elkartearen egoitza hartuko duen eraikina.**

berriro hartzea aztertuko da", azaldu digu Javier Ollo Martinez alkateak. Gaineratu duenez, guraso elkarteak eraikinaren barruko aldea txukunduko du eta udalak leihok eta ate berriak jarriko ditu.

Bilkura berean Altsasuko Udalak Kaskardiako, Dermauko, Axarizuloetako eta Larrezabalgo herri-larreak kudeatzeko zuzeneko adjudikazio espedienteari hasiera ematea erabaki du. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren interesatuek eskaerak egiteko aukera izanen dute.

» Arakil / Irurtzun

Udalak ikasleen eskola garraioa antolatu nahian

Heldu den urtean Iruñean DBHko 3. eta 4. mailak, Lanbide Hezkuntza eta Batxilergo ikasi nahi dutenek autobusez joan-etorriak egiteko udaletxeetan aurre-matrikulazioa egiteko eskatu diete

Despeditu berri den ikasturtean Arakilgo eta Irurtzongo 168 ikasle Iruñera joateko eskola garraioa erabili dute. Arakildik DBHko 11 ikasle eta bestelako ikasketak egitera beste 14 joan ziren. Irurtzundik 62 DBHra eta 81 bestelako ikasketetara. Udalek Nafarroako Gobernuarekin akordioa egin dute bidaiak kudeatzeko, baina udalendako kostu handia denez hura aldatzen saiatu dira. Alferrik. Horregatik, zenbait moldaketa egin beharrean izan dira. Udaltik azaldu dutenez, ikasleek kudeaketan ez dute aldaketa handirik nabarrituko.

Akordioaren arabera DBHko 3. eta 4. mailak Iruñera ikastera joaten diren ikasleak garraioa dohainik izanen dute. Nafarroako Gobernuak ordainduko du eta ikasleentzako bidez joan-etorri bidezko informazioa jasoko ikasleek. Baina Lanbide Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleen eskola garraioaren kudeaketaz udalak arduratuko dira. Ibilbidea, ordutegia eta prezioak antzekoak izanen direla aurreratuko dute. Eta udalak izanen dira sortuko den zuloa estaltzeaz arduratuko direnak.

Guztia behar bezala antolatzeke eta zenbat erabiltzaile izanen diren aurreikusitako eta eskola garraioa egoki antolatzeke, Arakilgo eta Irurtzongo Udalek heldu den ikasturtean ikasle izanen direnei zerbitzuan izena emateko



Irurtzunen bi emakume autobusaren zain.

eskatu diete. Irurtzunen epea atzo despeditu zen. Arakilen, berriz, gaur zabaldu eta heldu den ostiralera arte izanen da.

Ituna, hautsita

Ikasleen joan-etorriak antolatzeke Imozko, Lekunberriko,

Larraungo, Arakilgo eta Irurtzongo udalek bat egin zuten. 1998tik Nafarroako Gobernuarekin urtero berritzen duten ituna dute. Haren helburua da herri horietako ikasleei unibertsitatekoak ez diren gainontzeko ikasketak egiteko aukera erraztea. DBH, Batxi-

lergoa, Lanbide Heziketa eta unibertsitatekoak ez diren beste ikasketak dira.

Akordioaren arabera Irurtzongo Udala arduratzen zen kudeaketaz. Sortutako gastuak udalak eta Nafarroako Gobernuaren artean banatzen ziren, derrigorrezkoak ez diren ikasketetako ikasleek egiten duen ordainketarekin batera. Azken hiru ikasturteetan Nafarroako Gobernuak ez du zerbitzuak eragindako defizita bere gain hartu. Horrek udalendako jasanezina den gastua eragin du Arakilgo Udalarik ikasturteko 12.000 euro eta Irurtzongoari 40.000.

Egoera bideratzeko udal ordezkariak gobernukoekin elkartu eta ituna moldatzen saiatu dira. Nafarroako Gobernuak eskola garraioaren defizita bere gain hartzeko helburua zuten udalek. Baina ez dute lortu ituna aldatzea edo berritzea. Horregatik, eskola garraioaren antolakuntza aldatzera behar izan dute.

SAKANA

Argindar linean hobekuntza lanak egiten ari dira

Uda guztian barna egingen dira lanak, azpiegiturak zaharrak direlako, eta tarteka argindar linean mozketak egin beharko dira

Deikaztelu-Itsaso argi indar linea Sakanatik pasatzen da. 70. hamarkadan sortua, nahiko zaharra da eta lineak ongi funtzionatzeko tarteka mantenu hobekuntza lanak

egin behar dira. Red Eléctrica Españolatik adierazi digutenez, uda honetan mantenu hobekuntza lan horiek egingo dira argindar linea guztian, tartean Sakanan. Udan egingo dituzte argindar kontsumoa jaisten delako eta herritarren ahalik eta kalte gutxienak

sortzeko.

Dagoeneko hasiak daude lanak, Uhartea Arakil eta Arakil aldean. Lanak faseka egingo dira. Deikaztelu-Itsaso argindar lineako tartekak batzuetan haria aldatuko dute, egungoa zaharra delako. Aldaketa horrekin argindar linearen edukiera edo kapasitatea handituko dela deritza Red Eléctrica Españolak, eta segurtasunean eta efizientzian irabaziko dela. Mantenu lan guztiak uda bukaerarako eginak egongo direla aurreikusten du Red Eléctrica Españolak.



Argi indar lineako lanak egiteko Irañetan jarritako azpiegitura.

Etzegarateko bidesaria, gertuago

Beranduenez urte berriarekin martxan jarri nahi du Gipuzkoa Foru Aldundiak kamioi astunendako bidesaria. Europako 2011/76 zuzentarauaren arabera kontinentea zeharkatzen duen ardatzean



Kamioiak N-1 autobian.

dago N-1 errepidea eta haren mantentzea bidesarien bidez lortutakoarekin egin behar da. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak errepide horretako "zirkulazio pilaketa" arindu nahi du.

Egunero N-1 errepidea 12.000 kamioi baino gehiagok erabiltze dute. Aurki arku bidezko hiru bidesarirekin topo egingen dute Gipuzkoan: Etzegaraten, Andoainen eta Irunen. Ibilgailuek ez

dute gelditu beharko eta arku baten azpitik pasatzen den aldiro identifikatu eta ordainketa egiteko sistema bati lotuko da. Etzegarate eta Irun bidea egiten duten garraiolariak gehienez 10 euro ordaindu beharko dituzte. Etzegarate-Idiazabal eta Andoain-Irun artekoak egiten dituztenek 3,5 euro eta Andoaindik pasatzen direnek euro bat ordaindu beharko dute.

» Arakil

Haurrendako aisialdi eskaintza

Arakilgo Udalak udako aisialdi kanpua antolatu du. Agorriean izanen da, astearteetan eta ostegunetan, 10:00etatik 13:00etara. 5 eta 14 urte bitarteko haur eta gaztetxoek zuzendutako eskaintza da. Izena garilarren 25era arte eman daiteke udaletxean, edo 948 500 101 edo 634 584 226 telefonoetara hots eginez.

Boliviarraren prozesua babesteko deia

Horixe egitera deitu du Askapenak. Erakunde internazionalistatik adierazi dutenez, "Latinoamerikako herriek euren askatasunaren bidean berebiziko une larria bizi dute egun. 15 urte luzeetan aurrekaririk gabeko lorpenak erdietsi ostean, herri hauetako oligarkiek eta inperialismo yankei europarrak hil hala biziko oldarraldiari ekin diete herri sektorek bereganatu duten boterea berreskuratzeko desiotan." Askapenakoen iritziz, "ordena zaharra" ezartzeak "Latinoamerikako

herriak beste behin ere iparraldearen agindutara makurrarazi nahi dituzte, miseriara kondenatu eta zapalkuntza edo esplotazioa baina ez diete opa."

Brasilgo "estatu kolpea" eta "Venezuelako boliviarraren prozesuaren aurkako erasoaldia" testuinguru horretan kokatu ditu Askapenak. "Venezuelako gobernu zilegiaren aurka abiarazi den gerra fronte anitzeko gerra da: ekonomikoa, mediatikoa, naziarreko, kale eraso bidezko lagundua eta paramilitarrek eragina."



Askapenak egindako Venezuelaren aldeko kontzentrazioa.

Askapenaren iritziz, "inperialismoak azken hamarkadetakoa agendak eraldatzailerik eta antiinperialis-

ta bilakatu den motorra deuseztatu nahi luke eta bertako petrolio erreserben jaun eta jabe egin."

Askapenatik "Euskal Herri langileari" dei egin diote, "dagokion maila eman eta boliviarraren prozesua babesteko." Internazionalismoa "gure egiteko" deiarekin batera, "inperialismo yanke eta batez ere espainiar zein euskal eskuina salatzea dagokigu, burutzen ari den kanpaina politiko eta mediatikoa salaketaren jo mugan ezarritik." Azaldu dutenez, "prozesua askatzailearen etorkizuna, bere defentsa eta sakontzea herrion askatasun eta burujabetzan sinisten dugun guztion delako, boliviarraren herri behar gaituelako, eta geuk ere behar dugulako bera garaile."



Bateratzea. Lizarrustiko parajeen naturak, pertsonak, arteak eta kulturak bat egiten dute.



Lareo. Naturakurarekin bategiten duentoki zoragarriadugu Lareokourtegia, mendiz eta pagadiz inguratuta



Loreak apaingarri gisa. Herriaren aipamen nagusienetako bat etxeetako eta balkoietako apaingarri ezberdinak izatendira. Herri zaindua eta berezia.

TURISMOA SAKANAN



Bargagain. Tontorraundi beste batzuentzat, Altsasuko udalerrian kokatuta eta Urbasako mendilerroaren bigarren puntarikaltuena, 1.157 m. Bertan gurutze bat dauka.

Aralarko atea, Lizarrustin



Aralarko atean kokaturik aterpetxea eta jatetxea aurkituko dituzu. Horiez gain naturaren parte izateko aukera eskaintzen dizugu, bai guk antolatutako ibilbideekin bai seinaleztatuta

daudenekin. Aralarren bertan, pertsona, natura eta artea uztartzen diren tokian gaude. Zentzumenei bidea eman eta ezagutu gaitzazu, harrera bikaina egingo dizugu.

Baxerri erretegia

Arbizuko bihotzean, 50 lagunendako tokia, terraza inguruaz gozatzeko. Etxeko sukaldaritza, sarre-rakoak, fritoak, postreak eta tenporadako platerak, bertako produktuak. Postreak eta txuleta parrilan dira gure espezialitateak. Tripadvisor-en oso puntuazio altua daukagu. Gure etxeak baserri baten itxura dauka, etor zaitez eta etxean bezala sentituko zara!

Altsasun, Biltoki

Sakanako herririk handienean kokaturik aurki daiteke Biltoki jatetxea, Altsasun hain zuzen ere. Eguneko menuak eta karta jate-txean eta gaueko giro paregabea aurkituko duzularik. Etxean bezala hartuko zaitugu.



Lizarrusti Parke txea **Aralarko atea** interpretazio zentroa aterpetxea jatetxea ibilbideak Lizarrusti Road Bike

943 58 20 69 / 615 781 287 Aia auzoa, 2 lurra2@hotmail.com

BAXERRI ERRETEGIA terraza

948 460 737 Arbizu

BILTOKI TABERNA • JATETXEA

Pintxoak Bokatak Plater konbinatuak Karta

Astelehenetik ostiralera Eguneko menua 9€

Asteburuetan Menu berezia 25€


948 467 876 • Altsasu



Aitzaga. Hariztiez inguratuturik, XIV.mendearen amaieran Iturmendik bereganatu zuen azken herrixka izan zen. Ateerromaniko amantentzen du eta kanpoko zelaiangurutzak dauzka, XVIII. mendeko via crucis batekoak, batzuek euskarazko inskripzioak dituztelarik.



Hartzabal. Etxarriko biztanleentzatesanahi berezi aduendemia. Maiatzaren 1ean egun berezia izaten da, pagoa zutik jartzen baitute hilabete osoan zehar, ohitura hau garai bateko artzainendakoseinalea zen artaldeamendira igotzeko garaia baitzen.



Beriain. Arbizuk iparraldean mugakide du Aralarko mendilerroa, beheko basoa eta parez pare, hegoaldean Beriain mendia.



Basotik itsasora. Garai bateko ontzigintza elikatzen zuten haritzen ibilbidean murgiltzeko aukera Altsasuko Dantzalekun. Sakana, haritzen lurraldea ibilbidean, itsasontzi bat eraikitzeko pausuak erakusten diguten panel informatiboak aurkituko ditugu.

Etxarriko kanpina

Urbasa-Andia eta Aralarren, estrategikoa, Urederra iturburua, Iruñea eta Gipuzkoako hondartzak bisitatzeko. Partzelak, bungalowak eta logela anitzak. Igerilekuak, squash, futbito, basket eta tenis kantzak. Hainbat natur ibilbide bertatik. Zabalik: martxoan aste-buru eta zubietan. Aste Saindutik urriaren 4ra arte, egunero. Urritik abenduaren 25a arte, asteburu ta jaiegunetan. Abenduaren 25etik abenduaren 31ra arte, egunero.

Arbizuko ekokanpina

Naturan murgildua eta komunikazio bide bikainekin Iruñera, Donostiara eta Gasteizera. Mobil home bioklimatikoak, logela anitzak eta argi indarradun partzelak. Supermerkatua, taberna-jate-txea, aintzira naturala hondartzarekin, igerilekua, haur parkea, altzaridun karpa, parkina eta auto-karabanendako tokia. Jasangarritasun ekologikoaz egin dira erai-kin guztiak. Inguru zoragarria oinez eta BTT-ez ibiltzeko.

Sanpedroko bidea etxea

Festetaz, ekitaldietaz eta ezkontzetaz gozatzeko, lasaitasun osoz. Altsasun, Donostiatik 49 km. tara, barbakoa eta terraza duen lorategia. Parking pribatua bertan. 5 logela, bainugela bat, pantaila lauadun telebista, DVDa. Jantokia eta sukalde zabala, ontzi-garbigailua eta labearekin. Mandireak eta esku ohialak bertan. Iruñea 44 km. tara, Gasteiz 41 km. tara. Ekin-tza ezberdinak, zaldiz, txirrindulaz eta oinez.

Nemesio etxea

6 lagunendako tokia, animaliak onartzen dira. Etxe goxoa, erabat jantzita. Lorategia, baratza ekologikoa, oilotegia. Aralar, Urbasa eta Andia bertan. Zaldian ibilbideak, harizti eta ur jauzi artean. Parapentean ibil gaitzke. Mugikortasun baxua dutenendako egokituta, txikienek haur parkea atarian dute. Pilotalekua oso gertu dago, trafikorik ez dago Iturmendin. 30 min. Iruñean edo Gasteizen, zator eta gozatu!

948 460 537
Etxarri Aranatz
www.campingetxarri.com

848 47 09 22
www.campingarbizu.com

San Pedroko Bidea 25
Altsasu · 650 023 698

Iturmendi · 644 555 328
casaruralnemesio@gmail.com




Urbasaren sabeletik. Jakinada Urbasaak uiferoz bete-ta dagoela eta horren lekuko Cristinos kobazuloa, bertan kokatuta eta bisitatu daitekena.



Jentilen begidara pean. Eskalatzeko toki aproposa, jentilen begia izeneko harkaitza. Sarabe ingurunean kokaturik ere San Miguel ermitaren hondamenak edo Gazteluko Aitzan kokaturik dagoen Gentilsukaldea dago.



Sarabe ingurunea. Iruritzako gazteluaren zaintzapean, Aitziber ermita eta Sarabe bailara topatuko ditugu. Bertan murgildu eta bizitakoa oso esperientzia berezia izango da.



Urederra. Izenari ohore egiten dion ibaia, Urbasa sortzen da eta ingurua natur erreserba izendatu dute. Sortzen den leku ikusgarritik aurrera, Bake-dano, Zudaire, Barindano, Artabia eta Larrion herriak zeharkatzen ditu.



Urbabako balkoia. Pilatosen balkoia izenarekin ezagun den begiratoki ederra Urbasa-Andia parke naturalan kokaturik dago. Bertatik Ameskoa bailara eta Urederraren iturburua ikus daiteke.

Errotain, kirola eta turismo aktiboa

Urdiainen bertan aurki daiteke gidatutako zaldi ibilaldien aukera paregabea. Urdiaingo bertako errotako baserrietik abiatuko dira ibilaldi guztiak eta antolatzeak aukera ezberdinak daude, egun erdikoak edota egun osokoak. Milaka urteetako zuhaitzak ikus daitezke, baserriak, baselizak, inguruko herriak, trikuharriak eta baita Urbasa-Andia parke naturala ere. Eguraldiaren arabera apiriletik iraila bitartean prakti-



katu daiteke kirol zoragarri hau eta bide batez Sakanako hainbat txoko eder ezagutu.

Urbasan, abentura



Larraonan kokaturik eta Urbasa mendatearen oinetan, Ameskoako bailaran abentura eta entretenimendurako alternatiba aukera paregabea dago. Naturan bertan bia ferrata, eskalada, BTT, Orienting, ibilbide gidatuak, kobazuloak eta piknik gunea duzu.

Turismo eta aisialdi jarduerak ezberdinak aurkituko dituzu Urbasa Abentura parkean. Natur gunek ezberdinak daude inguruan, hala nola, Entzia eta Lokiz. Familian, lagunekin, taldean edota bikotearekin abentura biziaz gozatzeko aukera paregabea.

Bioitza kanpina, Urbasan

Urbasako natur parkearen erdian kokaturik, Bioitza kanpina daukazu. Naturan murgildu, gure jatetxea ezagutu eta antolatzen ditugun jardueretan parte hartu. Usainak, dastamenak eta koloreak bat egiten duten tokian gaude.

Udako eskaintzak
7-14 urte bitartekoentzako kanpusak:
uztailaren 11tik 15era
uztailaren 18tik 22ra

ERROTAIN
URDIAIN (NAFARROA)
687 424 839 • 626 749 149 • errotain@gmail.com

URBASA
ABENTURA
Mendigaraia 32, Larraona
info@urbasaabentura.com
www.urbasaabentura.com
677 264 559 - 610 431 999



urbasa bioitza

www.campingurbasa.com
info@campingurbasa.com
948 39 52 23

Festak Sakanan



Uharte Arakilgo Galtxorratxekoek jaurti zuten festen hasierako suziria.



Arbizuko koadrila, San Juan festen hasieran.



Altsasun San Pedro ospatu zuten.

ARRUAZU

Festetako lau egun

Horiexek gorde dituzte arbazuarrak. San Pedrorako erromeriarekin gaur hasi eta astelehena bitarte festa nagusi arbazon.

Egitaraua

>> Garilak 1, ostiela

15:00etan Bakutzek bee itxeko ataiya garbitzia.
19:00etan Suziriya Ostatatut!
19:30ean Meza San Pedro basilizen.
20:00etan Meenduba Sanpedronon, baserritarres!
22:00etan Zezensuskua Tximooneko ataitik.
22:30ean Arbazuko Zortzikua herriko plazan.
23:00etan Herri afaaiya Itur gainen.
00:30etik 4:30era Dantzaldiya Tximeleta taldiakin.

>> Garilak 2, launbeta

12:30ean Play backen entsaioa.
18:00etan Zirko tailerra.
20:00etan Gazta ta ardua betiko lekuben.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldiya Alaiki taldiakin.
22:00etan Zezensuskua Tximooneko ataitik.
12:30etik 3:30era Dantzaldiye Alaiki taldiakin.

>> Garilak 3, iyendia

17:00etan Mus Ineztura Itur-Gain elkartien.
17:00etan Jolas parkia haurrendako.
19:00etan Haurrendako Ginkana.
20:00etan Gazta ta ardua guziyendako.
20:00etan Banakako Pala Erakustaldiya.
20:00etatik 22:00etara Dantzagarriyek Tximeleta taldiakin.
22:00etan Zezensuskua Tximooneko ataitik.
22:15ean Herri afaaiya herriko itxen.
00:30etik 3:30ra Dantzak ta jauziyek Tximeleta taldiakin.

>> Garilak 4, astelehena

15:00etan Herri paella-jatia.
17:00etan Itxes-itxeko erronda
18:00etan Herri kirolak denondako.
19:30ean Haurrendako txokolate-jatia.
20:00etan Gazta ta ardua guziyendako.
20:30ean Arbazuko Play back txapelketa.
22:00etan Zezensuskua Tximooneko ataitik.
22:30ean Herri parrillada plazan.

00:30etik aurria Gaupasa Ostataben nekatu artio!

UNANU

Asteburuan, festak

San Pedroren omenezko festak asteburuan ospatuko dituzte unanuarrek.

Egitaraua

>> Garilak 1, ostirala

12:00etan Txupinazoa.
15:00etan Bazkaria, elkartean.
18:00etan Haurrendako jokoak.
20:00etan Auzatea.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Patxirekin.
22:00etan Afaia, elkartean.
00:00etatik 4:00etara Dantzaldia Patxirekin.

>> Garilak 2, larunbata

11:00etan Gosaria, elkartean.
12:00etatik 15:00etara Haurrendako puzgarri eta tailerrak.
15:00etan Herri bazkaria, elkaratek antolatuta.
17:00etatik 20:00etara Haurrendako jolas parkea.
20:00etan Auzatea.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Dj Garaterekin.
22:00etan Afaia, elkartean.
00:00etatik aurrera parranda Dj Garaterekin.

>> Garilak 3, igandea

11:00etan Gosaria, elkartean.
12:30ean Pilota partidak.
15:00etan Bazkaria, elkartean.
18:00etan 7etan Aire, euskal kantak.
20:00etan Auzatea eta festen despedida.

Egunero, egunean zehar, triki-poteoa egonen da.

LIZARRAGABENGOA

San Pedroko hiru egunak

Sainduaren eguna pasa ondoren, asteburu hartu dute lizarrengotarrrek festak ospatzeko.

Egitaraua

>> Garilak 1, ostirala

19:00etan Festen hasiera.
19:30ean Auzatea.
21:30ean Afaia.
23:00etatik 2:30era Dantzaldia.

>> Garilak 2, larunbata

12:00etan Etxez-etxeko erronda trikitilariakin.
16:00etan Puzgarriak.
17:00etan Pilota partidak.
18:30ean Aizkora erakustaldia.
19:30ean Auzatea.
21:30ean Afaia.
23:00etatik 2:30era Dantzaldia.

>> Garilak 3, igandea

12:00etan Etxez-etxeko erronda trikitilariakin.
16:00etan Puzgarriak.
17:00etan Mus txapelketa azkarra, elkartean.
17:30ean Apar festa.
18:30ean Txokolate-jana.
19:30ean Kontzentrazioa: Euskal presoak, Euskal Herrira.
20:00etan Auzatea

URDIAIN

Bost festa egun, erromeria eta guzti

San Pedroren omenezko festak abiatuko dira bihar Urdiainen. Bost eguneko ospakizunetan San Pedro zelaira joan eta han erromeria alaiaz gozatzeko aukera izanen dute urdiaindarrek. Asteazkena bitarte bada zerekin goza Urdiainen.

Egitaraua

>> Garilak 2, larunbata

12:00etan Etxajua eta festen hasiera Sakaranga txarangarekin.
13:00etatik 15:00etara Kuadrillen arteko kalderete txapelketa, UGAK antolatuta.
17:00etan Haur kategoriako bizikleta lasterketa eta ginkana.
18:00etan Herriko gazteen arteko pilota partidak, UGAK antolatuta.
20:15etik 22:00etara Dantzaldia Tximeleta taldearekin.
22:00etan Euskal presoan aldeko afaia.
1:00etatik 4:00etara Dantzaldia Tximeleta taldearekin.

>> Garilak 3, domeka

10:30ean Ardo banaketa San Pedroko hariztian.
12:30ean Meza nagusia San Pedroko basilizan.
14:30ean Bazkaria San Pedroko zelaian.
17:00etan Zortzikoa.
19:00etan Salbea eta herrira itzulera.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Gaubela taldearekin.
22:00etan Zezensuskua.
00:30etik 2:30etara Dantzaldia Gaubela taldearekin.

>> Garilak 4, astelehena.

Jubilatuven eguna
10:00etan Gosaria alondegian, Tintinurri elkaratearen eskutik.
12:00etan Meza.
12:30etik 14:00etara Dantzaldia Bixente Setoainekin.
14:30ean Jubilatuen bazkaria, ondoren Bixente Setoainekin dantzaldia.
15:00etan Gizonen bazkaria, Irunberriko Txarangak alaitua.
18:00etan Asier Kindam magoa, plazan.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin.
24:00etatik 3:00etara Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin.

>> Garilak 5, asteartea

10:00etan Gosaria alondegian, gizonek eskainia.
12:00etan Herriko dantzari txikiak.
13:00etan Pancho Balbuena, plazan.
14:30ean Emakumeen bazkaria, Txorongo Txarangak girotua.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Gabenara taldearekin.
00:30etik 3:30era Dantzaldia Gabenara taldearekin.
Garilak 6, asteazkena
10:00etan Gosaria Aitziber elkaratearen eskutik.
12:00etan Joku trenea plazan.
12:30ean Aizkolari eta harri-jasotzaile erakustaldia plazan.
14:30ean Herri bazkaria.
17:30ean Etxez etxe Peña Poteo txarangarekin.
16:30etik 19:30era Hainbat adinetaroko puzgarriak, zezen mekanikoa eta bizikleta eroen zirkuitua.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Trikidantz taldearekin.
22:00etan Zezensuskua.
22:30ean Bertso afaia frontoian, UGAK antolatuta.
00:30etik 03:30era Dantzaldia Trikidantz taldearekin.

Egunero, eguerdi eta iluntzean, ardoa banatuko da alondegian. Eguerdian lenzeria eta memoria tailerrekoen erakusketa.

>> Bakaiku

Maiatza, festez gogorarazteko

Bakaiuko Gazte Asanbladak deituta makina bat herritar elkartu ziren larunbat arratsaldean San Juan plazan. Urtero moduan bigarren maiatza jasotzeko lanari heldu zioten, baina oraingoan mendian beharrian herrian. Lana despedituta merezitako auzatea izan zen. Santiago festak iritsi bitartean han zutik izanen da maiatza.

AS
Alain Senar
 akademia • academia

INGENIARI INDUSTRIALA
 606 053 076
 Eguberak, 14 | ALTSASU

UDAN klaseak
 • Erreperaketen prestakuntza
 • Kurtso berriaren prestakuntza
 • Udako etxeko lanak eta proiektuak
 • Kurtsoan zehar emandako materiaren errepasoak
 ...

Euskaraz eta gazteleraz irakasgai guztiak
 Maila guztiak

BIKAIN
 GARAJEA, S.A.L.
 948 460 037 Arbizi
 948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak
SALMENTA

Mekanika
 Elektrizitatea
 Txapa
 Margotzea

JAVIER ZELAIA

Pintura eta igeltsua
 Zaharberritzeak eta obra berria
 Barneko dekorazioa
 Aurrekontua eskatu konpromezurik gabe

648 143 615 • ALTSASU

BERRIArekin, uda gozagarri

Sari apartak ditugu:



Astore materialean
gastatzeko **100 €-ko
lau bonu**



Akelarre jatetxean
**bi lagunentzako
otordua**

*Astelehenetik ostiralera



Zuberoa jatetxean
**bi lagunentzako
otordua**



Hiru hilabeteko
bost BERRIlagun
harpidetza

Parte hartu zozketan

uztailaren 5a
baino lehen!

➤ berria.eus/zozketa

Astebeteko bidaia Lanzarotera bi lagunentzat

*Hegaldia Bilbotik eta behe denboraldian



berria
mundua-euskarari-emana

SAKANA

Arkeologoak aurten Aralarra

Azken sei urteetan Uharte Arakilgo Zamartze monasterioaren inguruan aritu den lan taldea Aralarako santutegiaren inguruan ariko da lanean aurten. Haren jatorria eta Erdi Aroko ibarreko populazioaren profila zehaztea dute helburu

Aditu Arkeologiak zazpigarren indusketa saioa egingen du uda honetan, baina ibarraren azpia utzi eta mendi gainera igoko dira. Fran Valle de Tarazaga Monterok (indusketa eta ikerketa ardura-duna) eta Emma Bonthornek (osteoarkeologoa, hezurduren ardura-duna) zuzentzen duten arkeologia lantaldea Uharte Arakilgo Zamartze monasterioaren inguruan aritu beharrean Aralarako santutegiko absidearen eta Trinitate ermitaren artean ariko dira lanean. Astelehenean hasiko da bi hilabete iraunen duen arkeologia-indusketa.

Valle de Tarazagak azaldu digunez, "Zamartzeko indusketan geldialdia egitea beharrezkoa zen. Lan handiaren ondoren, kanpaina guztietan jasotako materialak eta emaitzak antolatzeke, aztertzeke eta egituratzeko denbora behar dugu, gero jendaurrean aurkezteko. Kontuan izan gure indusketa kanpainak apartekoak izan direla: hainbat hilabete iraun dute eta jende askoz osatutako lantaldeak aritu gara lanean."

Hori da toki aldaketaren arrazoietakoa bat, bestea: "santutegiaren inguruan egingen dugun lana orain artekoaren osagarria izanen da. Zamartzen elizaren jatorria eta erromatar garaitek izan duen garapena aztertzen saiatu gara. Aralarrek Zamartzerekin zuzeneko lotura du. Goñiko Teodosioren kondairatik harago, bere jatorria zein den eta kristautasunaren aurretik sakralitate gunea ote zen ikusi nahi dugu."

Horri lotuta, Valle de Tarazagak azaldu digu Sakanako Erdi Aroko populazioaren biologia profila egiten ari direla Zamartzen



2009an Aralarren egindako indusketa lanetan topatutako gorpuetakoa bat.



Arkeologoak hilobietan lanean.



Erdi Aroko hobi berreraikiak Zamartzen.

berreskuratutako ia 300 hezurdurerekin. "Donejakue bidea bertatik pasatzen zen eta Iruñeko katedralarekin estuki lotuta zegoenez, Aralarako santutegi ondoko hilerri-tik hezurdura batzuk berreskuratutahi ditugu. Haien diagnostikobereizlea egiteko erabiliko ditugu, Sakanako bertako populazioa eta beste tokietatik etorritakoak eta Zamartzen lurperatutakoak bereizteko." Horrela ibarreko Erdi Aroko populazioaren biologia profila finduko dute.

Hilerria

Arkeologoek ez dute santutegi barruan lan egingen, haren absidearen eta aldameneko Trinitate ermitaren artean baizik. 2009ko agorrilean Larrate enpresako arkeologoak zundaketak egin zituzten inguru horretan. Absidearen ondoan eta handik 13 metrora egindako zulaketetan bost helduren eta haur baten hezurdurak agertu ziren. Erdi Aroko nekropolia zela ondorioztatu zuten: sei gorpuek burua mendebaldera, eta oinak ekialdera dituzte, orientazio kristaun. Hilobi "xumeak" ziren. Abside ondoko hilobiak haitzean eginak zeuden eta bestean harriekin eginak. Arropa zantzua, txanponen bat, zeramika puskak eta gurutzeko bat duen hilerri bat opatu zituzten.

Horren guztiaren jakitun da Adituko taldea. Lanean hastean opatuko duten stratigrafiak

Boluntarioak

Indusketan lagundu nahi dutenek horretarako aukera izanen dute. Horretarako, lan@aditu.info e-posta helbidera mezua idatzi behar da honakoak zehaztuz: aukera noiz duen, esperientzia edo bestelako detaile argigarriak.

zehaztuko du indusketa gunea. "Orografia kontuan izanik, inguru horrek hilerri erabilera handia izatea zaila da. Baina, egia da, Zamartzeko emaitzak harrigarriak izan zirela. Guk Sakanako Erdi Aroko biologia profila gehiago fintzeko nahikoa hezurdura berreskuratzeke asmoz goaz. Horrekin batera, hezurdurak santutegian, edo inguruan, bizietatik hiltzen pertsonen eta haien bizimoduaz argibideak ematea espero dugu." Hezurduren datazioa egiteko hilobietan opatutako elementuak eta erradiokarbonoa erabiliko dute.

Behin hezurdurak atera ondoren, aurreko garaietako egitura aztarnak opatu asmoz, sakonago zultatu nahi dutela esan digu Valle de Tarazagak. Agirien arabera santutegia VIII. mendean sortu zen.

Indusketaz

Sakanaren eguraldiaren berri dute Aditukoek, eta horregatik egin dituzte indusketa kanpaina luzeak. Astelehenean hasi eta agorrilaren 31ra arte ariko dira santutegi ondoan lanean. Adituko zazpi arkeologoekin batera ikasleak ere ariko dira lanean. Bizkaia, Araba, Nafarroa, AEB, Erresuma Batua, Eslobakia, Kroazioa, Kanada, Australia, Hego Tirol, Frantzia eta Txina dira haien jatorria. Garilean 23 bat pertsona ariko dira lanean eta agorrilean 15 edo 17.

Gidatutako bisitak

Santutegira jende asko joaten denez, indusketa gunea mugatu egingen dute. Baina bisitariendako beti zabalik egonen da. Gainera, larunbatero, 11:00etan, gidatutako bisitak egingen dituzte. Garilaren 9an hasiko dira bisita horiek. Talderen batek larunbatetan joan ezin badu info@aditu.info e-posta helbidera idatzi dezake hala lotu daiteke gidatutako bisita.

Zamartze

Orain arteko indusketen emaitzez galdetuta Valle de Tarazagak azaldu digu gaur egun jasotako materialak eta hezurak aztertzen ari direla. Bournemouthgo Unibertsitatearekin (Erresuma Batua) batera nahastutako hezurak zenbat pertsonen dagokien kalkulatzeko sistema berri batean parte hartu dute. Bradfordko Unibertsitatearekin (Erresuma Batua) Erdi Aroko populazioaren artritisa zuen eragina aldatzen duen ikerketa egiten ari dira. "Lan horiek eta beste batzuk aurki argaitaraztea espero dugu."

Uharteko monasterioaren inguruan berriro lanean ikusiko ote ditugun galdetuta, Valle de Tarazagak baietz dio. "Oso emaitza onak lortu ditugu Erdi Aroko

hilerriaren gunean, adierazle den populazio bat berreskuratuz. Baina erromatar gunean emaitzetan sakontzeko gogoz gelditu gara." Aditukoak ziur daude erromatar garaian Zamartze "toki handi eta nabarmena" zela. "Kokapenak eta berreskuratutako materialen eta egituren kalitateak Zamartze bueltatzea merezi duela adierazten digu." Hala balitz, I. eta IV. mende arteko gunean ariko liriteke lanean. "Orain arte berreskuratutakoa baloratu beharra dugu eta Nafarroako Gobernuari, elizbarrutiarri eta Uharte Arakilgo Udalarri esku-hartze handiagoa proposatu, Sakanako eta Nafarroako iragana ezagutzeko balio itzeleko ondare elementu horri balioa emateko."



Zamartzeko informazio panela irakurtzen. Eskubitan erromatar aztarnak agertu diren gunea.

MENDI LASTERKETAK

KATARAIN BIGARRENA IRIMORA IGOERAN: Ismail Razgak irabazi zuen (15:22) Urretxu-ko Irimora igoera (4 km). Beñat Katarain la-

kuntzarra bigarrena izan zen (15:33). Bestalde, San Martzialgo igoera (3,6 km) Jose Antonio Salgado altsasuarra 69.a sailkatu zen.

kirola

Txirrindularitza

Erbiti eta Arrieta Tourrera

Larunbatean hasietagilaren 24an despedituko da Frantziako Tourra. Hiriberriko Imanol Erbiti Movistar taldearekin arituko da Tourrean, Nairo Quintana eta Alejandro Valverdetaldeburuak laguntzen. Nelson Oliveira, Winner Anaconda, Gorka Izagirre, Dani Moreno, Jesus Herrada eta Ion Izagirre izango dira Movistarren gainontzeko taldekideak. Jose Luis Arrieta uhartearra eta Chente Garcia Acosta izango dira Movistarren zuzendariak.



Jose Luis Arrieta.

ZAZIPIGARREN TOURRA

32 urteko txirrindulari arakildarrendako bere zazpigarren Tourra izango da aurtengoa. 2010. urteetik Erbiti urtero aritu da Tourrean eta Movistarren konfiantzako talde gizonetako bat da. Bestalde, aipatzekoa da aurreko asteburuan Alacanten jokatuak Espainiako Txirrindularitza Txapelketetako erlojupeko txapelketan Imanol Erbiti 8.a sailkatu zela.

Ailetz Lasa garaile Agurainen

Kadeteek lasterketa izan zuten igandean Agurainen, 16. San Juan Saria, Gaztetxoak Torneorako baliagarria. Burundako Quesos Albeniz taldeko Ailetz Lasa izan zen txapelduna (1:21:35), Zarautzarrataldeko Haritz Erasunekin esprint estua izan eta gero. Bere taldekide Mateo Gonzalez hirugarrena sailkatu zen, segundo batera, Unai Villalobos 40.a eta Marcos Pison 41.a, biak 31 segundora eta Josu Jaka 81.a, 5:08ra. Taldekako sailkapena Quesos Albenizek irabazi zuen.



Txirrindularitza

Orain emakumeen txanda

Emakumeen Nafarroako eta Euskadiko Erlojupeko Txapelketa jokatu da Iturmendin igandean, 11:00etatik aurrera

Garagarrilean gizonen Nafarroako eta Euskadiko Erlojupeko Txapelketa hartu zuen Iturmendik eta igandean emakumeek hartuko dute erreleboa. Izan ere, V. Iturmendiko Trofeo jokatu da igandean, Emakumezkoen Nafarroako eta Euskadiko Erlojupeko Txapelketa izanen dena, kadeteen, juniorren, 23 urtez azpikoaren eta elite mailan.

Goizeko 11:00etan hasiko dira emakume txirrindulariak banakabanaka erlojuaren kontrako lanean. Lehenak jubencil eta afizionatuen mailakoak -23 urtez azpikoak eta eliteak- izango dira. 11:00etan hasiko dira lanean eta minutu bateko aldearekin ekingo diote ibilbideari. 14 km-ko ibilbidea izanen dute aurrez-aurre, Arbi-



Maialen Aramendia aurreko urteko Iturmendiko erlojupekoan.

zuko Utzubar industrialderaino eta buelta. Kadete mailakoak, aldiz, 12:30ean hasiko dira banakako lanean. 10 km osatu beharko dituzte, Iturmenditik Etxarri Aranzoko biribilguneraino eta buelta.

Erlojupekoan sakandarrak lehiatzea aurreikusten da, junior mailan dabilen Maialen Aramendia iturmendiarrak eta kadete mailan dabilen Leire Maiza, Joana Irastorza eta Bakarne Gonzalez.

Carok Gipuzkoako Itzulia kendu zion Xabier Maizari

Quesos Albeniz taldeko lakuntzarrak bi egunetan liderraren maillota jantzi zuen baina azken etapan ezin izan zuen eutsi. Seigarrena sailkatu zen, 58 segundora

Astelehenean despeditu zen VII. Gipuzkoako Itzulia, juniorren mailako aitzinetapa eta 3 etapako proba. Burundako Quesos Albeniz taldeko txirrindulariak lehiatu ziren bertan eta sekulako itzulia egin zuten, Xabier Maiza lakuntzarrak bereziki. Lehendabiziko etapan lider jarri zen Xabier Maiza, etapan bigarrena sailkatu eta gero, eta bigarren etapan ere lidergoari eutsi zion. Baina asteleheneko hirugarren eta azken etapa El Proex-Iturribideko Oier Lazkanok irabazi zuen eta 6 segundora sartu zen Arabarrak taldeko Alejandro Caro. Xabier Maiza 11.a sartu zen, 1:47ra, eta maillot horia galdu zuen.



Maiza, liderraren maillotarekin.

Sailkapen orokorra kontuan hartuta, Arabarrak taldeko Alejandro Caro izan zen txapelduna (6:59:11) eta Quesos Albenizeko Xabier Maiza seigarrena sailkatu

Irisarri Espainiako txapeldunordea

Afizionatuen mailan Euskadiko Selekzioarekin aritu den Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko Jon Irisarrik zilarrezko domina lortu zuen Espainiako Txapelketetan, Oscar Pelegri valentziarraren atzetik sailkatu eta gero.

Moreira garaile Tolosan: San Juan egunean Jose Maria Anza Memoriala jokatu zen Tolosan, Lehendakari Txapelketarako baliagarria zen proba. Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko Mauricio Moreira uruguaiarra izan zen txapelduna, sprintean (2:55:10).

zen, 58 segundora. Bere taldekide Asier Etxeberria 15.a, 3:18ra. Erregularitasunaren sailkapenean bigarrena sailkatu zen Maiza. Gipuzkoako Itzulia azken egunean ihes egitea pena izan da, baina egindako lanarekin oso kontentuegoteko arrazoia asko ditu Maizak.

Halterofilia



Gorka Endjido Espainiako Halterofilia Txapelketan

Etxarriarra 85 kiloko kategorian 14.a sailkatu zen

Asteburuan Espainiako Halterofilia Txapelketa jokatu zen. Gorka Endjido etxarriarra 85 kiloko kategorian lehiatu zen. Kanariar selekzio-ko Andres Mata izan zen kategoriko irabazlea (89,39 puntu) eta Nafarroako selekzioarekin lehiatu zen Gorka Endjido etxarriarra 14.a sailkatu zen (62,33). Sailkapen absolutuan edo orokorrean Andres Mata izan zen lehena eta Gorka 54.a.

Triatloia

Eneko Iturbe bigarrena Aritzalekun

Garagarrilaren 18an jokatu zen Aritzaleku Triatloi ezaguna, bi distantziatan. Distantzia olimpiokoan -1,5 km igerian, 41 km bizikletan eta 10 km korrikan- open mailan Tim Joanes Roig izan zen txapelduna (2:16:06). Sakana Triatloi Taldeko Eneko Iturbe bigarrena sailkatu zen, 2 minutu pasatxora (2:18:50). Sakana Alejandro Zabala 18.a sailkatu zen (2:28:49). Aipatzekoa da erreleboetan Sakana taldeak ezin izan zuela proba bukatu.

Esprint distantzian -750 m igerian, 20 km bizikletan eta 5 km korrikan-Pello Gutierrez izan zen txapelduna (1:07:22). Sakana Triatloi Taldeko Javier Borrega 46.a sailkatu zen (1:28:26), Jose Manuel Borrega 47.a (1:28:27) eta Sergio Garcia 48.a (1:28:30).

12 KUOTA ITZULTZEN DIZKIZUGU

Kuota bakoitzeko 150€ gehienez
2016/7/10 arte

Tucson

Futbola benetako zaleekin hasten da

Eurokopako ilusia, ikuskizuna eta grina ez lirakeke ezer zu bezalako zalerik gabe. Horregatik, zale sutsua izateagatik, Eurokopa ospatzen ari den bitartean Hyundai bat hartzen baduzu ez dizugu opari bat egingo, hamabi baizik: lehen 12 kuota itzuliko dizkizugu.

HYUNDAI | NEW THINKING. NEW POSSIBILITIES

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A.
ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • www.autsanmiguel.com



Gama Hyundai Tucson: CO₂ (gr/km) isurtzea: 119-175. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6-7,5.

1,6 Gdi /131 CV) 4x2 BLUE ESSENCE Hyundai Tucsonentzako eskaintza. 13.000€ko finantzazio minimoa, gutxienez 60 hilabete. Kontratazio adibidea: 2016/06/05 eta bere lehen ordainketa 2016/07/05; eskura ordainketa 19.500€, BEZ, barne, garraioa, zergak, Matrikulazioa, promozio deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta PIVE paketa (Gobernuaren PIVE planaren baldintzetara lotuta). Sarrea 6.291,19€, 254,08€ko kuota 1.59.250,00€koa. (T.A.E. eta lehen kuota kontratazioaren eta ordainketa datuen arabera) (kita izan daiteke). Irteke komisioa 3,00% 396,27€, eskura. Kreditu Osoa 13.208,87€. Kreditorearen kostu osoa 4.001,48€, zor dien gutzia 12.207,39€. Txandakako ordainketa osoa 23.501,48€. Eskaintza, Hyundai berria, Hyundai kontzesionario ofizialetan 2016/06/10 eta 2016/07/10 data artean erosten duten Penintsulako eta Balearretako norbanako gutzientzabaldin eta Santander Consumer E.F.C. S.A.ekin finantzatzen badute. Promozioaren baldintzetan, onarpenari lotuta, ikusgai dauden modeloa: Tucson Style. Lehen 12 kuotari mugatutako promozioa, kuota bakoitzeko 150€ko itzulketarekin gehienez ere. Eskaintzatik kanpoko modeloa, Genesis, HI eta H350. Promozioaren baldintzak eta gainontzeko modeloa www.hyundai.es/12cuotas en edota sareko gure kontzesionarioetan.

Mendi lasterketak

Walther Becerrak eta Virginia Perezek Trikutraileko errekorrak apurtu zituzten

1:42:58 eta 2:07:08 izan zen txapeladunen denbora

Etxarri Aranazko III. Triku Trail mendi lasterketa -21 km, 1.400 metroko desnibel+-arrakastatsua izan zen oso. Probako 350 dortsalak aspaldi agortuak zeudela, 282 korrikalarik lortu zuten Aralarren jokatuak mendi lasterketa bukatzea. Proba Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketarako eta Euskal Herriko Koparako baliagarria zen. Sestao Alpino taldeko Walther Becerra sestaoarrak irabazi zuen, 1:42:58ko errekor berria ezarriz. Ia minutu bateko aldea atera zion Lezoko Ander Iñarrari (1:43:48). Jon Sola iruindarrak osatu zuen podiuma (1:45:32).

Becerra, "deskuidatu gabe"

31 urterekin, bere lehenengo Triku Traila zuen Becerrak. Berezia bezain malkartsu eta gogorra izan zen ibilbidea bere esanetan. "Ez nago nire unerik onenean, hainbat lesio izan ditut. Nire mailan ez egoteak gehiago sufritzea ekarri dit eta ez dut guztiz disfrutatzea lortu" aipatu zuen. Izan ere, gerria mindurik izan du eta oraindik ez du lortu guztiz osatzea. Lehen postua mantentzen jakin zuen: "hasieran indartsu

Maiza eta Goikoetxea lehen sakandarrak



Triku Traila inoiz baino sakandarragoa izan zen, 48 korrikalari sakandarrek lortu baitzuten proba despeditzea, horietatik 6 emakume zirela. Gizonezkoetan Joxeja Maiza etxarriarra izan zen azkarrena, helmugan 13. postuan sartu eta gero (1:54:32). Aritz Ganboa izan zen bigarren sakandarra, 22. postuan (1:58:28) eta Ander Unzurrunzaga lurresbaso beterano etxarriarra hirugarrena, eta probako hirugarren beteranoa (2:01:53). Emakumezkoetan Maria Goikoetxea etxarriarra izan zen lehen sakandarra eta helmugan 158.a (2:32:57), Maite Zabaleta etxarriarra bigarren sakandarra eta helmugan 178.a (2:38:05) eta Erkuden San Martin etxarriarra hirugarren sakandarra eta helmugan 183.a (2:39:31). Argazkian Alberto Razkin, helmugan.

ekin diot, lehen minutuetatik bigarrenekoarekin distantzia mantentzeko". Ez dela xamurra izan aitortu du, segika izan baitzuen ibilbide osoan zehar Ander Iñarra. "Deskuidatu gabe ibili behar izan dut ibilbide osoan" gaineratu zuen.

Emakumezkoetan ere orain

arteko errekorra apurtu zuen Sestao Alpino taldeko Virginia Perez gasteiztarrek (2:07:08). "Osolasterketa polita da, zuhaitz artean eta aldapa nahiko gogorrekin" azaldu zuen. Maider Fraile izan zen bigarrena (2:10:26) eta Andrea Garai hirugarrena (2:10:33). Izan ere, Tri-

kuTraileko ibilbidea zoragarria da. Etxarriko kanpina irteera eta helmuga izanda, eta Etxarriko Trikuharrien ibilbidea oinarri hartuta, harizti eta pagadi ikusgarrieta tik barna gauzatu zen proba.

Ben Daud juniorra txapeldun

Proba Euskal Herriko Koparako baliagarria zenez, kadeteendako eta juniorrendako 15 km-ko ibilbidea prestatu behar izan zuten aurten antolatzaileek, lehenengoz. Juniorretan Lakuntza-Aralar lasterketa irabazi zuen Hamid Ben Daud izan zen irabazlea (1:21:36). Asier Estarriaga etxarriarra izan zen lehen sakandarra, juniorretan zazpigarrena (1:34:51). Emakumezkoetan Janire Agirrek irabazi zuen (1:53:06) eta kadeteetan Ander Gaviña (1:25:12) izan zen azkarrena.

Sarrietan 1.200 euro banatuziren dirutan, txapela eta trofeoz aparte. Guztia antolatzeko 100 boluntario inguru aritu ziren lanean. Triku Trail kirol taldeak antolatu zuen proba, Etxarri Aranazko udala, Etxarriko Kanpina, Sakana Kooperatiba, Xalok kirol nutrizioa eta beste makina bat babesleren laguntzarekin.

Sakandarrak III. Triku Trailen (21 km)

Gizonak:

1.	Walther Becerra (Sestao)	1:42:58
13.	Joxeja Maiza (Etx.)	1:54:32
22.	Aritz Ganboa (Arru.)	1:58:28
29.	Ander Unzurrunzaga I. (Etx.)	2:01:53
33.	Alberto Razkin (Etx.)	2:03:02
34.	Mikel Rubio (Iru.)	2:03:05
36.	Mikel Pz. de Eulate (Etx.)	2:04:17
37.	Raul Audikana (Olaz.)	2:04:24
42.	Fco. Javier Gomez (Alts.)	2:06:10
44.	Ander Unzurrunzaga G. (Etx.)	2:06:36
57.	Beñat Anda (Etx.)	2:10:06
67.	Israel Arbizu (Etx.)	2:10:52
68.	Javier Borrega (Alts.)	2:10:53
73.	Juan Mariñelarena (Etx.)	2:12:26
77.	Patxi Cano (Alts.)	2:13:07
78.	Andoni Azanza (Alts.)	2:13:07
90.	Iosu Garmendia (Etx.)	2:16:28
95.	Fran Araña (Arb.)	2:17:35
100.	Juanjo Armendariz (Irañ.)	2:18:28
107.	David Mutiloa (Iru.)	2:19:56
113.	Juan Daniel Lakuntza (Etx.)	2:22:03
114.	Iban Gonzalez (Urd.)	2:22:19
115.	Javier Senar (Etx.)	2:22:33
121.	Joxan Salgado (Alts.)	2:23:17
126.	Ibai Arrese (Etx.)	2:24:31
128.	Mikel Satrustegi (Arru.)	2:24:58
133.	Xabier Urrestarazu (Etx.)	2:26:58
139.	Aitor Salinas (Etx.)	2:28:26
145.	Eneko Lazkoz (Etx.)	2:29:58
147.	Igor Artieda (Etx.)	2:30:26
148.	Fermin Zornoza (Olaz.)	2:30:29
157.	Ibon Ubeda (Etx.)	2:32:32
165.	Mikel Beloki (Etx.)	2:35:50
170.	Jon Goikoetxea (Etx.)	2:36:41
184.	Felix San Roman (Alts.)	2:40:07
199.	Juan Jose Iriarte (Etx.)	2:43:46
206.	Joxi Lazkoz (Lak.)	2:46:19
207.	Raul Moro (Etx.)	2:46:19
214.	Fco. Jose Juango (Iru.)	2:47:31
219.	Aiert Lizarraga (Etx.)	2:49:51
227.	Unai Urrestarazu (Etx.)	2:52:29
236.	Xabier Etxeberria (Etx.)	3:04:52
244.	Hodei Lakuntza (Etx.)	3:12:40

Emakumeak

46.	Virginia Perez (Gasteiz)	2:07:08
158.	Maria Goikoetxea (Etx.)	2:32:57
178.	Maite Zabaleta (Etx.)	2:38:05
183.	Erkuden San Martin (Etx.)	2:39:31
226.	Ioana Lopez (Etx.)	2:52:29
245.	Silvia Perez (Alts.)	3:12:50
246.	Jone Pelaez (Alts.)	3:12:50

BABESLE, LAGUNTZAILE ETA BOLONDRES GUZTIEI ESKERRIK ASKO ZUEN LAGUNTZAGATIK

ETA BEREZIKI:

AGOITZ, AIERT, AIMAR, AINTXINE, AITOR, ALBERTO, ALBERTO, ALEJO, ALFONSO, ALFONTSO, ALVARO, ANA KRISTINA, ANARTZ, ANDER, ANDONI, ANDREA, ANGEL, ANTONIO, ARAITZ, ARANTZAZU, ARITZ, ARKAITZ, ASIER, AXIER, BATIRTZE, BEA, BEÑAT, BIDART, BIXENTE, BORJA, CRISTINA, DAVID, DEMOUSTIER, DIANA, DIEGO, EDORTA, EDUARDO, EGOITZ, EKAIN, EKAITZ, EKHI, EKI, ELOY, EMILIO, ENEKO, ENRIQUE, ERIZ, ERKUDEN, ESTHER, EVA MARIA, FELIX, FÉLIX JAVIER, FERMIN, FERNANDO, FERRAN, FRAN, FRANCISCO JAVIER, FRANCISCO JOSE, GAIZKA, GOAR, GONZALO, GORKA, GUILLERMO, GUSTAVO, HAMID, HODEI, IBAI, IBAN, IBON, IGNACIO, IGOR, IKER, IMANOL, INMA, IÑAKI, IÑIGO, IOANA, ION, IOSEBA, IOSU, IRAITZ, ISMAEL, ISRAEL, ITSASO, IVAN, IZAI, IZASKUN, JANIRE, JAVI, JAVIER, JESUS, JOAQUIN, JOKIN, JON, JONE, JORDI, JORGE, JOSE JAVIER, JOSÉ LUIS, JOSE MARI, JOSE MARIA, JOSÉ MIGUEL, JOSEBA, JOSU, JOXAN, JOXE, JOXE M^a, JOXI, JUAN, JUAN CARLOS, JUAN DANIEL, JUAN FELIX, JUAN JOSE, JUAN MARIA, JUANJO, JULEN, JUNE, KARLOS, KEPA, KIKE, KIMETZ, KOLDO, LAKE, LANDER, LAURA, LHOUCIN, LIDE, LUIS, LUIS MANUEL, LUIS MIGUEL, MADDI, MAIDER, MAITE, MANEX, MARCOS, MARIA, MÁRIO JORGE, MARKEL, MARTÍ, MARTIN, MICHELLE, MIGUEL ANGEL, MIKEL, MIKELDI, MIREN, MIREN JAIONE, MIRIAM, MÓNICA, OIER, OIHAN, ONINTZA, ORTZI, OSCAR, OSKAR, PABLO, PATRICIA, PATXI, PAULA, PEDRO, PEIO, RAFA, RAFFAELLA, RAMUNTZO, RAUL, REBECA, RICARDO, RIKARDO, ROBERTO, RUBEN, SANDRA, SANTI, SANTIAGO, SERGIO, SILVIA, SONIA, TEDY, TXOMIN, TXUS, UGAITZ, UHAITZ, UNAI, URKO, URTZI, UXOA, UXUE, VERONICA, VIRGINIA, WALTHER, XABIER, XANET, XANTI, XUBAN ETA YOANN.

LASTERKETAN PARTE HARTZEAGATIK.

Areto futbola



Koxka taberna taldeak Torremolinosen jokatuko du asteburuan.

Koxka taberna Kopara

Espainiako Kluben Arteko ANFS Espainiako Kopa jokatuko da asteburu honetan

Asteburu honetan, garilaren 2an eta 3an, Espainiako Areto Futbol Kluben Arteko ANFS Espainiako Kopa jokatuko da Torremolinosen eta Alhaurín de la Torren. 16 talde lehiatuko dira. 4 multzotan

banatuta ligaxka jokatuko dute kopan ariko diren taldeak, eta multzo bakoitzeko talde onenek jokatuko dute bukaerako fasea.

Kopako txapeldunak, trofeoaz gain, sari garrantzitsua izango du: UEFSk antolatutako Europa 2017 txapelketan Espainia ordezkatzeko txartela.

Automobilismoa



Auto Klasikoak Altsasun

Larunbatean, 9:30ean, Zumalakarregi plazan

Clasicos Alsasua taldeak, hainbat babesleren laguntzarekin 3. Auto eta Motor Klasikoen Topaketa antolatuko du bihar Altsasuko Zumalakarregi plazan. Helburua ibilgailu klasikoak dituzten gidariak bildu, euren auto eta motorrak ikusgai jarri, Sakanatik barna buelta eman eta mahaia inguruan biltzea da, motorzaleen festa ospatzeko. Auto bereziak gertutik ikusteko aukera polita biharkoa.

Egitaraua

9:30ean: Auto eta motor klasikoaren topaketa Zumalakarregi plazan.

11:00etan: Parte hartzaileendako eta lagunendako auzatea.

12:30ean: 25 km-ko ibilbidea. Bueltan Altsasuko Foru Plazan elkarteta eta trikitixekin poteoa.

14:15ean: parte-hartzaileendako zozketak.

15:00etan: Bazkaria Gure Etxean.

Automobilismoa / 4x4

16 pilotu Arbizu 4x4 Trialean

Guztira 16 todoterreno lehiatu ziren larunbatean ospatutako Arbizu 4x4 Trialean. Ez zen txapelketa bat izan eta ez zen sailkapenik egin. Helburua pilotuak bildu eta ongi pasatzea zen, eta Arbizuko industrialdean bildutako zaleei primerako ikuskizuna eskaintzea. Eta, jakina, helburua bete zuten pilotuek eta kopilotuek.

16 pilotuen tartean makina bat sakandar zeuden. Gaizka Mendoz pilotu olaztiarra Ander Gorospe kopilotuarekin, Unai Mugica

pilotu altsasuarra Oscar Troyano kopilotuarekin, Josu Berastegi eta Bego Cid pilotu urdiandarrak Jon Cid euren kopilotuarekin, Tasio urdiandarra Migel Machado kopilotuarekin, Jon Razkin pilotu dorrobarra Urko Resano kopilotuarekin, Mela Lizarraga pilotua Unai Lizarraga kopilotuarekin eta abar. "Oso giro ona sortu zen eta gustura pasatu genuen, zirkuituan bertan elkarrekin afaldu genuen denok, gustura" adierazi digu Arbizu 4x4 Trialean ari-

Arku jaurtiketa

Iriartek urrezko domina

Gizonezkoen Long Bow finala irabazi zuten Hiriberrikoak

Zaragozan Espainiako Arku Jaurtiketako Txapelketa jokatuko da asteburuan, zelai modalitatean. Nafarroako selekzioarekin 16 arku jaurtitzaile lehiatu ziren, tartean Hiriberriko Jose Luis Iriarte. Arkulari nafarrek lan bikaina egin zuten eta 7 domina ekarri dituzte. Tartean, Jose Luis Iriarte

tek urrezko domina lortu zuen gizonezkoen Long Bow finalean. Komunitateen Arteko Txapelketa irabazi zuen Nafarroak, Encarna Garrido, Irati Zurbanok eta Jose Luis Iriartek lortutako puntuazioen baturari esker, eta Ribera de San Adrian klubak Espainiako Kluben Arteko Txapelketa irabazi zuen, Encarna Garrido, Jose Luis Iriarte eta Pedro Garridori esker.



Jose Luis Iriarte, autonomia onenaren Nafarroako saria jasotzen.



Goikoetxea, Bierzon ezin

Errodamendu bat apurtu ondoren, arazoak izan eta proba utzi behar izan zuten

Asteburuan Bierzoko Lur Gainerako Rallya jokatuko zen Ponferradan, Espainiako Rallye Txapelketarako baliagarria. Proba gogor eta ikusgarri honetan Carlos Aldekoa pilotua eta Javi Goikoetxea kopilotu olaztiarra aritu ziren

(Ford Fiesta R5+). Ongi hasi ziren, baina ezin izan zuten proba despiditu errodamendu bat apurtu ondoren arazoak izan zituztelako eta proba utzi behar izan zutelako. Primerako denboraldia egiten ari dira Aldekoa eta Goikoetxea, baina, zoritxarrez, ezin izan dute Bierzoko proba ikusgarria bukatu ahal izan.



Bierzoko Rally gogorak irudi ikusgarriak utzi zituen. LANDER ZABALETA.



Bego Cid, lanean hasteko prest.

tu zen emakume bakarrak, Bego Cid Perkazek. "Emakume gidari bakarra ni izan nintzen, baina beste neska bat auto barruan nirekin sartu zen" gaineratu du.

Trialean zulo eta oztipo handi

eta pikoagoak prestatzen dira. Hemen gidariaren abilezia ikustea da inportanteena. Pilotua eta bere ibilgailua daude eta zulo handi horietatik ateratzea, hori da kontua. Ikusgarriagoa izaten da.

Non erabili

LARKA

ALTSASU

100€tik gorako erosketengatik 10€ko deskontu balea (beherapenetan izan ezik).

LASTAI GASOLINDEGIA

ALTSASU

0,04 €ko deskontua litroko, erregai guztietan.

FORD GABIRONDO

ALTSASU

Olio aldaketetan %30eko deskontua. %15eko deskontua lan mota guztietako eskulanetan.

PATXI GALARZA

IRURTZUN

% 5eko deskontua harategian eta supermerkatuan 100 €rengatik txistorra opari.

JM AGIRRE HARATEGIA

LAKUNTZA

50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

DANTZALEKU TABERNA

ALTSASU

Bazkarietan eta afarietan kafea edo kopa doan.

KAXETA

ETXARRI ARANATZ

% 5eko deskontua irakurketako liburuetan.

KATE INFORMATIKA

IRURTZUN

% 5eko deskontua 30 €tik gorako erosketan.

CITROËN SAN MIGUEL

ALTSASU

Total olioetan %30eko deskontua. Pneumatikoen aldaketetan %30eko deskontua.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€ 948 564 275



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza www.tanatoriosirache.com

Jaime Zelaia Auzmendi

Meza, uztailaren 3an
eguerdiko 12:00etan
Bakaikun.

Bakaikuko kintoak eta lagunak



Pedro Mari Irigoien Galarza

I. urteurrena



Eskerrik asko gue parte izateitik

Etxekuek



Hainbat aukera

Galdetu

948 564 275

Oroigarriak egiten ditugu
Nahi duzun argazki eta testuarekin

Foru plaza, 23-1 Altsasu • 948 564 275 • gk@gkomunikazioa.eus



guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 ENBETARIK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en doan
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa:
iragarki@guaixe.eus

HIGIEZINAK

ETXEBIZITZAK

SALDU

Pisua salgai Etxarri Aranatzan. 100 m², 4. solairua, igogailua badu, 3 logela, sukaldia, egongela, komuna eta 2 trasteleku. Argitasun handikoa, San Donatorantz begira. Interesatuak deitu 619 50 30 95 telefonora.

Lakuntzan pisua salgai. 1. solairua, 3 logela, komuna, egongela eta sukaldia. 90 m². Tel 618 883 077.

Etxebizitza lursailarekin salgai Etxarri Aranatzan. 4 gela, 2 komun, sukaldia-egongela, garajea eta 130m karratuko lursaila. Interesatuak deitu 676 92 71 65 telefonora.

OPATUTAKOAK / GALDUTAKOAK

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta mikilak: 19. Belatitakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

OPATUTAKOAK/GALDUTAKOAK

GALDUTAKOAK

Haur baten erloju beltza galdu da Altsasun. Pultsometroa dauka. Tel 647 37 02 41. Sakelako telefonoa galdu nuen Urdiainen, ekainaren 11n, larunbat gauean. Norbaitek topatu badu, dei dezala 948 461 647 ra, eskertuko da.

OHARRAK

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta iheslariek aldeko abenduaren 30 eki

ekimenean parte hartu zuten gazte sakandarrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119.

Helduen Nafarroako Euskal kantu Jaialdia. Udazkenean izanen da. Izena eman nahi duenak nafarroakoeskalkantu@gmail.com edo amadominguez@tafallaikaastola.org e-postara diatzi dezake, helduen jaialdirako dela adieraziz.

Euskaldun bat euro bat. Nafarroako erresuma-koa izan zen Baigorriko Etxaizia gaztelua eskaladunentzat erreskuratu nahi da. Nafararren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com.

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2100 2173 87 0200346965.

Volkswageneko langileendako deia. Iruñeko lantegiak zure elkartasun proiektua deialdia bigarren urteaz aurkeztu du. Bocalan Biak Bat fundazioak "Lau zango milaka irri" programa aurkeztu du laguntza deialdi horretara. Proiektua aurkeztu duten Sakanako elkarte bakarra dira. Fundazioetik Volkswagen-eko langileei 24 proiektuaren aldeko botoa ematera animatu dituzte.

Nicoleren aldeko diru-bilketa. Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korronte honetan sartu dezake dirua: ES33 2100 5365 2301 0002 9770.

GoiEner Iruñean. Landarek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behe, Errotxapean, hilabete-

ko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardueraren zuzendaritza. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>.

Euskonwes ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza, euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94.

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela.

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 € edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com.

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.eus.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkarte eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorrik.

Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioak, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetalak, eztiak, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina. Informazioarako: 656 711 130 (Gorka).

Herialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldako tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak. Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intoxiapunta gazte gunean (Burunda kaleetik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina:

12-30 urte.

Izan zaitez Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzeko: kafea hartu, paseatu baina beti euskaraz. Informazioarako: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

JAIOTZAK

- Lorea Pires Arangoa, ekainaren 17an Irurtzun.
- Liher Maia Checa, ekainaren 20an Altsasun.
- Nare Almirantearena Alzueta, ekainaren 21ean Irurtzun.
- Lur Diaz Mintegi, ekainaren 24an Altsasun.

EZKONTZAK

- Migel Angel Castillo Arenaz eta Edurne Alegre Santander, ekainaren 22an Irurtzun.
- Angel Urrutia Galarza eta Veronica Guadalupe Cheza Coral, ekainaren 25ean Urdiainen.

HERIOTZAK

- Gerardo Palazuelos Sanchez, ekainaren 23an Altsasun.
- Pedro Unanua Zelaia, ekainaren 26an Urdiainen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

kirola >>

Pilota



Finalean egon nahi du

Igandean Retegi Bi edo Altuna III.a izango du aurkari Joseba Ezkurdiak, Aspeko adarreko sanferminetako lau t'erdiko finalean

Sanferminetako lau t'erdiko Aspe adarreko lehen finalerdia jokatu zuten asteazkenean Jon Jaunarenak eta Joseba Ezkurdiak Mungian. Ezker eskua nahiko justu zuela aritu zen Jon Jaunarena. Ezin izan zuen Ezkurdiaren defentsa gaintu eta horrek amorraraztera eta akatsak egitera eramanean zuten leitzarra: 12 akats egiten zituen guztira.

Aldiz, arbizuarrak primerako jokoarekin dagoela erakutsi zuen. 2 eta 14 aurreratuta, partida bideratua utzi zuen. Bukaeran, 6 eta 22 irabazi zuen. Ongi sentitzen dela, momentu onean, aipatu zuen arbizuarrak. Igandean du burua, Sopolako partidari, bertan jokatu baita Sanferminetako lau t'erdiko Aspe adarreko finala. Aurkaria nor izango duen ostiralean jakingo du, Logroñoko Adarragan Retegi Bi eta Altuna III.a arituko baitira aurrez aurre, Aspeko beste finalerdian.

Asegareko adarrean Mikel

Urrutikoetxea sailkatu da Sanferminetako lau t'erdiko finala jokatzeke, Aimar Olaizolak uko egin baitzion finalerdian lehiatzeari. Urrutiren kontrako uztailearen 7ko final handian egon nahi du Ezkurdiak; ea lortzerik duen.

Olaztiko San Migel Txapelketa: 10. jardunaldiko partidak

Ostiralean, 20:00etan:

3.maila: Azparren-Agirre / Mendoza-Mendoza

2.maila: Elorza-Urbizu / Martinez-Flores

Nagusiak: Matxin-Elizegi / Jamar-Larraia

1.maila: Ioseba-Unai / Loban-Arbizu

Larunbatean, 17:00etan:

3.maila: Ruiz de Egin-Galartza / Peito-Ondatz

2.maila: Tuero-Goñi / Vazquez-Igoa

1.maila: Ijorra-Zubieta / Urteaga-Lauzirika



Bakaikoak eta Lasak Berria txapela jantzi dute



Errekakoek Berria txapelketa irabazi dute lehen aldiz. Tartean, Bakaikoa eta Lasa.

Doneztebeko Erreka klubak eta Azpeitiako Ilunpe klubak jokatu zuten, igandean, XIII. Berria Txapelketako finala. Kadeteetan Ilunpeko Iriartek eta Egigurenek 11 eta 22 irabazi zieten Errekako Telletxeari eta Apezetxeari. Gazteen mailako partidari berdintzea lortu zuen Errekak, Salaberriak eta Mariezkurrenak 22 eta 10 hartu baitzituzten menpean Ilunpeko Alberdi eta Odriozola. Hortaz, txapelketa nagusien mailako partidak erabaki zuen.

Indartsu hasi ziren Errekako Joanes Bakaikoa eta Adur Lasa etxarriarrak. 11 eta 1 aurreratu ziren berehala. Lasak sendo jokatu zuen atzean eta Bakaikoa distiratsu aritu zen aurrean. Azpeitiarrak 12 eta 8 hurbildu ziren, baina etxarriarrek egoki erantzun zuten eta, azkenean 22 eta 9 irabazi zuten. Garferekin debutatu berri duen Lasarendako eta aurreko astean ETB-Enpresen Ligako Torneoeko txapeldun Bakaikoarendako sari polita.

kultura >>

Mank-en Euskara Zerbitzuaren bidez beste album bat argitaratuko da

Isaak Martinez Ortizen eta Liebana Goñi Yarnozen Zerua gris dago albumak irabazi du 2016 Etxepare saria, 5.000 euro, egile eskubideen aurrerapen moduan. Udazkenean Pamielak argitaratuko du



Euskarazko albumen edizioan eragin asmoz antolatutako Etxepare sariaren 10. edizioak sarituak ditu: Isaak Martinez Ortiz idazlea eta Liebana Goñi Yarnoz ilustratzailea. Bien artean ondu dute *Zerua gris dago* albuma. Zerua grisa egon arren, elurrez eta koloreetako etxez inguraturiko istorioa da albumean jasotzen dena. Ipuinaren protagonistak bi haur dira, elurraren isiltasunari eta lasaitasunari bizitza ematen diotenak hain zuzen ere. Elur artean denbora aurrera doa, baita haien arteko erlazioa ere.

Patxi Zubizarreta eta Yolanda Arrieta idazleek eta Mikel Valverde ilustratzaileak osatutako epaimahaiak 23 lanen artean aukeratu behar izan dute. Hirukoteak azpimarratu duenez, "albumean adiskidetasun baten sorrera kontatzen bazaigu ere, generoak eragindako aurreiritzien kontrako aldarri isila eskaintzen zaigu, laguntasunaren aldeko proposamen sotila."

Epaimahaikideek diotenez, "*Zerua gris dago* lanak zeru grisaren azpiko zelai zurian aurki daiten biziaren gorazarre egiten dio, poliki eta kontu handiz, elur maluta elurtzara erori ohi den

eran, eta hoztasunean lagun bat izateak ekar lezakeen konplizitate koloretsua erakusten digu, berdindio lagun hori neska ala mutila izan." Eta nabarmendu dute "gutxitan bezala, testuaren eta irudiaren arteko oreka, apenas aditzi duen testu finaren eta finezia handiz eraikitako paisaia eta pertsonaien artean; ematen du isiltasuna entzun egiten dela, elur giroak koloreak indartu egiten dituela."

Epailendako "*Zerua gris dago*" lanak elurraren isiltasun mutuan murgiltzen gaitu, gainerako doinuak aditzeko. Elurretan oinak sartzeko gonbita egiten digu urrats-soinuekin gordeketa jolasteko." Eta irudiez diote: "oso aberatsak dira erabilitako kolore zein ukiarengatik eta erakusten dituzten xehetasunengatik. Horiek guztiek irakurketa desberdinak ahalbidetzen dituzte eta erakargarri

egiten dute historia. Gainera, planoak aldatzen direnez, erritmoa mantendu egiten da eta irakurlearen arreta mantentzen da."

+www.guaixe.euz

Antolatzaileez

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Nafarroako beste 18 toki erakunderen zerbitzuekin batera antolatzen du Etxepare saria, Pamiela argitaletxearen laguntzaz. Nafarroan literatura sari esanguratsu baten hutsunea zegoela ikusirik, eta, beraz, literatur lehiaketan aurrerantzean erreferentzia izanzen zeru saria sortzeko xedearekin, Etxepare sariak antolatuta zizuten 2004an. Etxepare sariak haur, gazte eta helduendako literatura saritu zuten bi ediziotan.

Festetarako kartel pare

Garilaren 20an hasiko dira Irurtzongo festak eta haiek iragarriko dituzten kartelak aukeratu dituzte dagoeneko. Helduen mailan 10 lan aurkeztu ziren eta



epaimahaiak Enrique Tenorio Perezen proposamena begiz jo zuen. Haurren mailan, berriz, Hegoa Legarra Prietok egindako marrazkia agertuko da festa egitarauaren kontrazalean. Batak eta besteak bere sariak txupinazoa lehenago jasoko dituzte, lehenak 400 euro eta 150 bigarrenak.

Liburunda Altsasu

Burunda kalea 6
948 469 201
liburunda@hotmail.es

Enkargatu liburuak uztailearen 30a baino lehen eta zozketan parte hartu.

Testu liburuak erosi eta %10 itzuliko dizugu eskola materiala erosteko.

Haize Berriak bandaren kexua

Haize Berriak bandak San Juanak zirela eta Altsasun aurreko ostiralean emandako kontzertua bere egoeraren Bandatik adierazi dutenez, 7.000 euro dira kezkaen iturburua. Urtero moduan 2015ean Altsasuko Udalak kultur taldeendako egingandako diru-laguntza deialdira aurkeztu zen banda. Urtero antzeko kopurua jasotzen du bandak, 14.000 euro. Hori jasoko zutenaren ideiarekin asmo handitan sartu ziren: Enrike Zelaiaren omenaldia etab.

Baina espero zutenaren erdia jaso zuten. Behin behinean zegoen kultura teknikariaren txostenari helegitea jarri zion bandak. Kultura teknikari titullarrak lehenik, eta kultura batzordeak ondoren, bandari arrazoiak eman zion: 7.000 euro beharrean 14.000 dagozkie. Ostiralean bandakoak kexu ziren: "sei hilabetedaramagu itxoiten. Aurtengo genituen proiektu batzuk arriskuan jarri ziren eta beste hainbati, diru faltagatik, ezezkoa eman genien." Udalarik konponbide azkarra eskatu zioten.

Javier Ollo Martinez alkateak argitu duenez, 2015eko diru-laguntzen deialdiak hasieran diru-kopurua bat zuen. Emendakin bidez diru gehiago bideratu zen baina handitze hori ez zen diru-laguntza deialdian jaso. 2015eko aurrekontuak itxiak daude eta haietan ezin da aldaketarik egin. Konponbidea emateko lege prozedura baten bilan ari dira udaletxean eta, horretarako, Nafarroako Herri eta Kontzeju Federazioaren laguntza eskatu dute. "Hainbat irtenbide egon daitezke eta haiek Kultura Batzordean aztertu beharko dira." • www.guaixe.eus

Bazkidetzeko deia

Haize Berriak bandako kideekin nahi duenak urtean 15 euroko kuota ordaindu behar du. Harremanetarako: bandahaizeberriak@hotmail.com

Klinika-artistak

Ahots bat: Zer ari naiz egiten. Tontakeria bat?

Bigarrena: Aurreneko egunetan haietakoren bat aztoratua zegoen... Baina pixkanaka...

Lehena: Hau guztia segitu dut, bainani honetan "txikitxo" naiz. Zein etorkizun izan dezakegu honetan?

Hirugarrena: Etxean esan zigun: arte modernoko neska bat etortzen zaigu eta harekin margozen luze egoten gara.

Bigarren ahotsa: Saiotara hala zaletuko zirenik ez nuen espero. Baina pixkanaka... Hasieran, nik halakorik ez dakit egiten eta halakoak esaten zituzten. Baina hori guztioi pasako litzaiguke. Guztiz harrিতuta, erabat. Mires-tuta. Sorpresa izan da.

Hirugarrena: Harrিতuta emaitzarekin. Informazio aberastasun iturri dira marrazkiak. Lanak alaiak dira.

Lehena: Berehala pasatzen zen.

Ez da antzezlan baten elkarrizketa. Josefina Arregi klinikako psikogeriatrikoan izandako elkarrizketa baizik. Astelehen arratsaldean izan zen, arte terapia saioen despedida ekitaldian, 15 minutuko bideo laburpen bat ikusi ondoren. Lehen ahotsa klinikako erabiltzaile batena da. Bigarrena, sendagile batena. Hirugarrena, senide batena.

Helena Santano Cid arte terapeuta altsasuarrekin aritu dira klinikako erabiltzaileak: "Lan handia egin dugu. Esperientzia ezin da hitzekin azaldu, benetan. Harritu egin nau. Guztia zoragarria izan da. Eta hori artea praktikatzen urteak daramatzadala." Santanoren inpresio gehiago: "saioetan haiendako ongizatea lortu da.



Nik pozik ikusten nituen. Saiotara etortzen ziren eta ni horrekin poz-pozik gelditzen nintzen. Esker ona besterik ez dut. Nire aitona-amonak dira."

9 parte-hartzaile

Arte terapia saioak hasi aurretik Santano lautan joan zen klinikara otsailean, erabiltzaileak ezagutzera. Saioak behar bezala garatzeko bospaseiko talde murriztak behar dira. Ospitale gunean daudenak gaitza garatuagoa dutenez, eguneko zentroko sei eta kanpo kontsultetako hiru erabiltzaile aukeratu zituen. Haiekin martxotik astelehenera arte aritu da. Seikotearekin astelehen eta asteazkenetan eta hirukotearekin ostegunetan.

Saio bakoitzaren hasieran, musikaren laguntzaz, erlaxazio saioa egiten saiatzen ginen. "Ez dut guztiz lortu, baina..." Ordu eta erdiko saioak ziren. "Asko kontzentratzen ziren." Santanok esanak: "helburua ez da sekula estetika

izan. Ni harritu egin nau haiek nola askatu diren. Nik beste edozeini bezala azaldu diet eta primeran ulertzen zuten. Eta obrak horren adierazpidea dira."

Haiek nola dauden ikusi behar zuen. "Sormen jarria ez eten eta lanean utzi. Artista moduko kontzepzioak dauden euren lanetan, konposizioa, kokapena, landu dute. Eta nik ez dut inolako klaserik eman. Hemen ez dut marrazten erakutsi. Beste kontu bat da hau. Denok barruan artista dugunaren adierazlea da."

Sortze-estimulazioa

Sortze-estimulazioa sustatzen saiatu da; batez ere, burmuinaren eskuin aldearen bizitzea. Horretarako, sortze-tresna ugari ematen saiatu da. Zerrenda luzea da: bat-bateko adierazpidea; airea putze ginez pintatzea; harea eta kolorearen bidez ukimena sentitzea; emozio kolorea, errepikapena; irudia behatzea eta marraztea; irudia

zaitu eta zatiekin beste bat landu; eguneroko objektuak behatu eta marraztu; naturako testurak; itsasoaren behaketa; eskultura baten sorrera; erretratua; auto-erretratua; koadro kolektiboa; mugimenduan pintatzea; collage; Mondrian interpretatzea; landareak; Kandinsky dastatzea; egurrezko makiltxoekin egiturak sortzea; landareen bidez usaimena gogorarazi; txotxez eta plastilinez egiturak egin; lerroak kontorneatzea; denen artean sortzea; hari apurtuak...

"Egiten uztea oso interesgarria da." Egun bat, Kandiskyren koadro bat, esaterako. Hari buruzko argibideak ematen zituen. Denen artean koadroa aztertu, zituen kolore eta irudiak behatu eta hortik abiatuta sortzen hasten ziren. "Gauzak gogoratzea edo haiei dei diezaiotela, horretan saiatu naiz beti. Gutxiago pentsatu eta gehiago sentitu. Eta sentazioen bidez (ukimena, usaimena,

bazterretik

Iosu Lizarraga

Aplikazioen munduan nabigatzen VII: Hello Word

Kaixo irakurzale maiteak, gaurkoan, aurtengo nire azkeneko kolaborazioa denez, zerbait oso desberdina ekartzen dizuet. Android programatxo bat egitea iruditu zait, "Hello Word!" tipikoa. Hasi baino lehen, nire Telegram nick-a utziko dizuet, norbaitek zalantzaren bat baldin badu, nirekin harremanetan

jartzeko: @IosuKiteen Android programatzeko, ordenagailuan-MAC, Windows, Linux...- "Android Studio" programa behar dugu. <https://developer.android.com/studio/index.html> helbidetik jaitsi dezakegudoan. Deskargatu eta instalatuta dugunean, programa hasiko dugu. Lehenengo pantailan "Starta New Android Studio project" sakatuko dugu. Hurrengo leihoetan proiektuaren konfigurazioa dator. Lehenengoan aplikazioaren izena, gure enpresa-

ren URL-a -asmatu dezakegu, adib. com.eztanda, java-k duen artxibo paketearen izena emateko -etaproiektuaren helbidea. Hurrengoan erabiltziko dugun Android bertsiominimoa jarriko dugu, 4.1 gure kasuan. Hirugarren leihoan, "Empty Activity" sakatuko dugu, Android Studio aplikazio bat hasteko kode basikoa jarriko baitu. Azkeneko leihoan, Activity-ren izena emateko konfigurazioa dugu, gure kasuan automatikoki jartzen gaituena utziko dugu.

Laburpen moduan, diseinua .xml-etan dugu (activity_main.xml) eta kodigoa .java-n (MainActivity.java) ..xml-etan botoiak, testua, irudiak... jarri ditzakegu eta .java-n lehen jarri ditugun osagaiei funtzionalitatea emango diegu. activity_main.xml artxiboa (res - layout karpeta) irekiko dugu eta azpiko "text" erlaintzean sakatuta, halako xml kodigoa ikusiko dugu: Ikusten denez, testu bat jarri digu "layout" (pantaila bezalako) baten barruan.

MainActivity.java artxiboa (lehen jarri dugun "enpresaren URL" karpeta) hurrengo kodea ikusiko dugu: Hemen .xml-a kargatzen ari da soilik. Honekin, "play" botoia sakatuta (app jartzen duenaren eskuinean), emuladore bat hasi eta gure aplikazioa funtzionamenduan izango dugu. Proba egin eta kontatuko didazue! Honekin aurtengo Guaixeko kolaborazioak bukatzen ditut. Hortaz, opor onak opa dizkizuet, mila esker eta hurrenera arte!

na...) irudi sinboliko bat transmititzea lortzea bilatu dut, bakoitzarendako bere sormen lana dena.”

“Informazioa jaso eta senez adierazten baduzu. Sentitzen denaren eta adierazten denaren artean buruan ez dago blokeorik. Artean denok beldur hori dugu: ez dakit egiten. Ez dakitesaten hasten garenean blokeoa sortzen da. Baina beraiekin lan egitea gozamen izan da.” “Zein interesgarria den dugun adina edozein dela ere gauza berriak sortzeko gaitasuna izatea. Zergatik jarriko dizkiot trabak neure buruari? Zergatik ez dut nire ametsa beteko? Adinak ez du garrantzirik. Beti denetarik ikasi dezakegu.” Gorena? “Bakarren batek mantxa bategin eta interpretatu daitekeenean. Ulertzen da eta eta nik interpretatu dezaket.”

Onurez

Azken saioan, karpeta batzuetan lanak banatu zituzten. “Lanak norenak ziren ezagutzen zuten. Ezberdintzen zituzten. Zuk hau egin duzu, hark bestea eta ni hurrena. Niretako garrantzitsua zen hori. Sinbolikoak hitzak baino indar handiagoa duela argi dago.” Bakarkako lana bai, baina talde lana ere izanda. Uzkur ziren hasieran, baita taldean sortutako koa-

droekin kolektibitatea eta haien arteko-interakzioa landu dira.

“Batek marrazkietan senideen izenak jartzen zituen. Haieie eskaintzen zizkien eta, aldi berean, haie-taz hitz egiten zuen. Memoria esnatu egiten ziztaion.” Medikuek esana berretsi dute: “klinikan halako terapia alternatiboagoak (musikoterapia, baratza eta laguntzarako txakurren bisitak) emaitza oso onak dituztela ikusi dugu. Kognitiboki eta emozionalki asko estimulatu da. Soziazioa lantzen da. Askok gozatu da eta eraginkorrak dira.” Gaineratu dute, klinikan profesionalendako eta erabiltzaileendako aire berriak dira halakoak. “Bakarren batzuk euren marrazkilari sena opatu dute.” Santanok: “segitzea gustatuko litzaidake. Halakoak, musikarekin, artearekin, antzerkiarekin edo dena delakoarekin egitea interesgarria da neretako. Aurkitzeko asko dago. Gauza garrantzitsuak gogorarazten dituztelako; ez delako hitza soilik.”

Familiek gaixoen beste arlo batzuk ezagutzeko modua izan dute. Helburuetako bat senideekin batera aritzea zen. Horregatik, Uharteko Arte Garaikideko Zentrorra bisita edo akaberako jendaurreko lanen aurkezpena. Familien eta etxeko gaixoen arteko erlazioa beste modu batera ulertzeko. “Aita-ama beste modu batean ulertzeko, etxean bizitakoa markatua dugu. Honek beste komunikazio bat sortzen du.” Astero landutakoa klinikako pasabidean ikusgai izan da.

Masterra

Santano arte terapia masterra egin du Madrilan azken bi urteetan. Master horren praktika da Josefina Arregi Klinikako esperientzia. Arte terapia zer da? “Arte terapeuta baten akonpainamenduaz egiten den jarduna da eta harekin jarraipen sortzailea egiten da. Sormen prozesu horretan pertsona laguntzen da. Parte hartzeko ez da artista izan beharrik, artea berezkoa dugu. Txikitatik sortzen dugu, hori ez galtzea da garrantzitsua”.

+www.guaixe.eus

Erakusketak

Klinikan sortutako lanak eta Santanok “gaitzarekin izandako sinbiosiarekin” sortutako lanekin Iruñeko Arte Eskolan erakusketa antolatuko da abenduan. Erakusketa bera heldu den urteko apirilean Altsasun ikusteko aukera izanen da.



Arte garaikidea

Dinamikaren barruan Uharteko Arte Garaikideko Zentrorra bisitan joan ziren. “Ederra izan zen.” Obra bakoitzari klinikako emozio bat eta usain bat eman behar zioten. “Zergatik sortzen dit poza eta zergatik gogorazten dit belar usaina? Xumeki zergatia eman behar zuten.” 90 minutuko bisita motza egin zitzaion. Medikuek: “museoan, ez dakit gustatzen zaidan edo ez, baina denok arretaz begiratzen genuen.”

Halakoetan “helburua da sormen lanaz harrizten zaituenaren bidez, elkar eragitea. Hori da garrantzitsua, ez lanak transmititzen duen jakintza. Niretako garrantzitsuagoa da nik zer sentitzen dut eta zergatik gelditzen naiz irudi honen aurrean, zer erakartzen nauen, duen esanahia baino.” Klinikan sortutakoa, “arte



garaikidea da hau nolabait esan. Berezko zerbait. Adierazgarria da. Abstrakzioa, mugimendua, mantxa... Txikitatik dugun marrazkirako gaitasuna ez da garatu. Eta, hala ere, sortzen dira... Barruan dugu. Esnatu beharra dago.” “Beste batzuk hemengo lanak ikusi eta emaitzarekin harrituta gelditu dira. Museo batean hau artistek egin dutela esaten dizute eta sinesten duzu.”

“Dakiten guztiarekin, gustatuko litzaidake haiek sortzen hastea. Zuzendu gabe, egun batean loreekin beste egun batean beste elementu batzuekin lan egitea.” “Ni ez naiz klinika askotan egon, baina hemen etxean bezala egon naiz. Gorputz eta arima aritzen dira lanean. Tratu ederra ematen diete. Pozik joaten nintzen klinikara, nire etxera. Dagoen kalitatea transmititu egiten da.”

BADATOR
Sakanako
gida
2017
GORDE
ZURE
LEKUA
948 564 275

urdiango
igeri
lekuak
zabalik
10:00etatik 20:00etara
Bazkariak, afariak,
bokatak, platerxoak
Hainbat ekintza udan zehar
AGERTU BISITA BAT EGITERA,
ZURE ZAIN GAUDE :) 948 391 132

HARATEGIA
Lopez de
Epikoetxea
CARNICERIA
948 562 157
Elizazpi 12 · Urdiain

GYRE-TOKI
Mareo Gure toki taberna
Bokatak
Kaxuelitak
Plater
konbinatuak
948 469 200
plazalde 2 urdiain

G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 10%	euria: 35%	euria: 10%	euria: 10%	euria: 60%	euria: 20%	euria: 10%	
Min: 11 Max: 21	Min: 13 Max: 17	Min: 10 Max: 21	Min: 11 Max: 26	Min: 13 Max: 19	Min: 9 Max: 99	Min: 12 Max: 21	

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	34	10	5
Etxarri A.	32.8	10.5	6.3
Altsasu	32.5	12.5	9.6
Aralar	24.4	6	16.8
Urbasa	29.5	10	1.8

: ilargiaren aldia >>

	ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
	4	12	20	27

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 • Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide sarituak

- 1.- **Sonia Larraza Lopez**
(Olazti)
- 2.- **Malu Ziordia Fernandez**
(Iruñea)
- 3.- **Ainhoa Beraza Elizondo**
(Irurtzun)
- 4.- **Aritz Goñi Beltza**
(Etxarri Aranatz)

>> 11 galdera

Itziar Flores, Francis Arregi eta Mari Kruz Mundiñano

Zubi Ondo kantu-poteo taldeak 10 urte

Testua: Erkuden Ruiz Barroso



GUAIXE FUNDAZIOA MEKNA proiektu izendatu du Nafarroako Gobernuak

Honek esan nahi du, Guaixeri emandako diruaren zati bat itzuliko zaizula errenta aitortpenean

← **150€** →

BEHERAKO EKARPENETAN
GORAKO EKARPENETAN

%40
%80

Milesker zure babesagatik!

1. Nola eta zergatik sortu zen taldea?
Euskaraz ez zen kantatzen, ohitura hori galtzar zegoen eta beste herri batzuetan taldeak sortzen hasi ziren, Donostian eta Iruñean uste dut orduan hasi zirela. Pentsatu genuen gu ere holako zerbaitekin hastea polita izango litzatekeela. Santa Ageda badago, Olenzterotan ere gutxira zihoazen... Altsasun hainbeste jai ditugunez, jai horietan kantatzeko behar hori zegoela ikusi genuen. Euskaraz kantatzearen beharra.

2. Zenbatero entseetzen duzue?
Elkartzen gara jaiak datozenean hiru astelehenago gutxi gora behera. Azkenean urte osoan zehar bueltaka ibiltzen gara, hainbeste jai daude... Udan lasaigo gaude, Sanjoanetatik festak arte ez gara elkartzen.

3. Sanjoanetan 10 urte bete zenituzten. Zerbait berezia prestatu zenuten?
Ez. Egia esan hamar urteak bat-batean etorri zaizkigu eta asmoa dugu beste egun batean ospatzeko. Bazkari edo afari bat egin nahi dugu, baina data jarri gabe dago.

4. Zenbat kide zarete? Jende gehiago sartu daiteke?
Hogeiren bat, gutxi gorabehera. Gurea ez da kuru bat, gure helburua da festetan euskaraz kantatzea. Orduan nahi duenak giltza dauka, baita abestiak ere. Guk entseetzen dugu, egon daiteke jendea entsegetara ez datorrena baina hurbildu daitekeena. Eta hori ona da. Neskatok batzuk agertu ziren eta oso gustura egon ziren. Hasi ginenetik hiru

pertsona berri gehitu dira. Jendea hurbiltzen da, baina kantu bat eta joan egiten dira. Momentu jakinetan jende gehiago hurbiltzen da. Saiatzengara holako tokietan kantu ezagunenak abesten. Baina puntuala izaten da. Ez dakit zergatik izan daitekeen. Gustatu bai, baina konpromisoa bezala ikusten dute eta egiten ez da konpromiso handia.

5. Zein adinetako jendea zarete?
Itziar eta Ester gazteenak izango dira. Berrogei urtetik gora eta berrogeita hamar urtetik gorago. Hirurogeita hamar daukatenak ere daude. Orduan berrogei urtetik beherako jendea ere behar da, baita hogeita hamarretik beherakoak ere. Denak onartzen ditugu. Aurten AEKrekin sagardotegira joan ginen eta adin guztietako jendea zegoen. Politza izan zen.

6. Altsasuko festa guztietan ateratzen zarete?
Bai. San Pedro ateratzen ez garen festa bakarra da. Baina bestela, festetan, ferietan, Santa Zezilian, Gabonetan, Santa Agedan, Alde Zaharreko jaietan eta Sanjoanetan.

7. Ibilbide jakin bat duzue?
Ez dago ezer zehaztuta, baina normalean antzekoa egiten dugu. Las Vegasen hastengara, erloju azpian abesten dugu, Gautxori, Arkangolarra ere joaten gara eta hortik normalean Biltokira. Sanjoanetan Fortxora joan ohi gara. Batzuetan ere Zumalakarregira joaten gara, Santa Agedan eta Santa Zezilian esaterako, pixka bat aldatzeko, baina normalean beti plaza inguruan egoten gara. Bi orduz aritzen gara.

8. Zein abesti kantatzen dituzue?
Denetarik. Euskal kanta tradizionalak eta beste batzuk hemengokak: Altsasuko *Pescadores*, *Maravillas* eta gure historia kontatzen dutenak, gaztelaniaz izan arren ere. Baina bestela, denak euskaraz. Ezagunak direnak aukeratzeko ditugu normalean, garai batekoak, gaur egungoak ere... Edo hain ezagunak ez diren batzuk. Ezagunak eta ezegunak nahasten ditugu jendeari harrapatzeko.

9. 10 urte hauetan erreperitorioa asko aldatu duzue?
Abestiak gehitu ditugu. Baina beti daude klasikoak, *Eperrak*, *Txantxibirin*, *Xalbadorren heriotza*... Guk aukeratzenez baditugu ere beti norbait gerturatzen da eta abesti hori kantatzeko esaten digute.

10. Musika tresnaren baten laguntza duzue?
Francis gitarrarekin joaten da. Laguntza handia da. Gitarra falta denean zerbaiten falta sumatzen dugu. Bestela tonoz joaten zara. Tonua hartzeko hasi ginen gitarrarekin, eta gero pixkanaka-pixkanaka akordeak egiten eta azkenean gitarra geratu da.

11. Etorkizunerako zer?
Gure estilo honetan jarraituko dugu. Jende gehiago etorri eta belaunaldi berri bat egotea nahi genuke. Euskal kantak entzutea, kantatzea, ikastea... Azken finean kalean euskal kantak aditzea da helburua; jaietan giro euskaldun bat egotea. Beraz, edozeini zabaldua dago taldea. Ez da kuru bat, ez duzu musika ikasketarik behar, librea da eta ez dugu asko eskatzen.